

Argitalpen hau REAS Euskadi proiektuaren ekimena da:



Proiektuaren kofinantzaketa:



Laguntzailea:



**Ekonomia solidarioa: ekonomia eraldatu, gure mundua eraldatzeko
Proposamen didaktikoa**

Egileak: Pepe Ruiz Osoro eta Vane Calero Blanco
(Sorkin, Alboratorio de saberes / Jakintzen iraultegia)

REAS Euskadi
Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea
Red de Economía Alternativa y Solidaria
Plaza Venezuela 1, 2º ezk. ezk. • 48001 Bilbo
Tel.: 944 160 566
reaseuskadi@reaseuskadi.net
www.economiasolidaria.org/reaseuskadi

2019ko abendua

ISBN: 978-84-120567-4-7

Lege-gordailua: BI-02712-2019

Diseinu eta Maketazioa: Marra, S.L.

Itzulpena: Labayru Fundazioa

Imprimaketa: Lankopi s.a.l.



Lan honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea egilea aitortzen bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada. Lan hau aldatzen edo eraldatzen bada edo lan honetatik beste bat eratortzen bada honen berdina den lizentzia batekin bakarrik banatu ahal izango da.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0>

Aurkibidea

Proposamen didaktikoaren oinarri pedagogikoa	5
Proposatutako jardueri buruzko ohar orokor batzuk	5
1. Zer gertatzen da ekonomiarekin?	7
1.1. Jarduera. "Eskuratu poltsa!" jolasa	9
1.2. Jarduera. Kontrapublizitateko kanpainak diseinatzea	17
2. Badago ekonomia egiteko beste modu bat	27
2.1. Jarduera. Emakumeak ekonomian: emakumeen arrastoak mapatzea	29
2.2. Jarduera. Ikasle (etorkizuneko langile) perretxikoa aurkitzea	43
3. Proposamen alternatibo bat: ekonomia solidarioa	51
3. Jarduera. Plataforma-ekonomiako kasuen azterketa	53
4. Zer egin dezakegu diruarekin?	57
4. Jarduera. Telebistako eztabaida saioa, banku etikoaren eta banku armatuaren artean	59
5. Lanak, enpleguak eta enpresak	63
5.1. Jarduera. Dualismoak gizarte modernoan	65
5.2. Jarduera. Enpresa jasangarrien adibideak ezagutzea eta irudikatzea	71
6. Merkatu sozial baterako kontsumo eraldatzailea	75
6.1. Jarduera. Interkooperazioko sareak sortzea	77
6.2. Jarduera. Etiketa gardenak diseinatzea	81
7. Diruaz eta merkatuaz haratago: komunitatearen zerbitzurako ekonomiak	85
7. Jarduera. Ekonomia komunitarioa, esperientziak mapatzen	87

Proposamen didaktikoaren oinarri pedagogikoa

Gida honi atxikitako proposamen didaktikoa garatzeko, honako lan ildo hauek hartu ditugu oinarri:

- Bizitza erdigunean jarriko duen heziketa: bizitzaren jasangarritasunaren proposamenetik abiatuta, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren funtsezko parte gisa hartzen dugu bizitzaren zaintza.
- Bizipenen bidezko ikaskuntza: ekonomia egunerokotasunera, eguneroko bizitzara hurbiltzeko metodologiaren bidez, betiere subjektibitatea eta norberaren bizi esperientzia aintzat hartuta.
- Heziketa kritiko eta emantzipatzailea: kontzientzia kritikoa lantzeko, gure gizartean gertatzen diren botere harremanez ohartzeko, eta, aldi berean, gizarte eraldaketako ekintzak sortzeko, irakaskuntza-ikaskuntza prozesu honetan diharduten pertsonen emantzipazioari begira.

Hori guztia lantzeko, Metodologia zehatz hauek erabiliko ditugu: bideoak ikustea, bakarkako lana, talde gogoeta, sormenezko diseinua, dilema etikoa, rol jolasa, talde dinamika, jolas kooperatiboa, talde diagnostikoa, taldeko ikerlana eta esperientziak mapatzea.

Proposatutako jardueren buruzko ohar orokor batzuk:

- Espazioa eta parte-hartzaileak. Ez dago jarduerak egiteko espazioari buruzko eskakizun zehatzik, eta 5 eta 25 lagun bitarteko taldeetan egiteko planteatuta daude jarduerak.
- Jarraibide lagungarri batzuk:
 - Lana bateratzea. Lana bateratzeko tarteak baliatu, ikusteko ea baduten landutako gaiei buruzko zalantzarik.
 - Ekitatea eta lankidetzatza. Jarri arreta irizpide horietan, lantaldeak eratzean eta ahozko azalpenetan.
 - Proposatutako denborak aldatzea. Proposatutako jardueren guztietan aukera izango duzue denborak aldatzeko eta egokitzeko, zuen errealitate eta interesen arabera, taldearen neurriaren arabera, taldearen jarreraren arabera, aurretiko ezagutzen arabera, etab.
 - Banaketa orekatua. Jarduera batzuetan, aztergaiak banatu beharko dira; saiatu ahalik eta modu heterogeneoenean aritzen, talde guztien lanak antzeko zailtasuna izan dezan, alde batetik, eta ikuspegi ahalik eta zabalena izan dezaten, bestetik.


1. Zer gertatzen da ekonomiarekin?



Sarrera

Indibidualismoa, arlo orotako lehia eta mugarik gabe irabaziak bilatzea gaur egungo eredu ekonomiko hegemonikoari atxikitako balioak dira. Hain daude gure gizartean normalizatuta, ezen bizitzako arlo guztietan eragiten baitigute. Haurren jolasetan, telebistako lehiaketetan, kirol jarduera batzuez ematen den itxuran... arlo asko eta askotan ikusten da indibidualismoa eta lehia sustatzeko joera nabarmena. Gogorazi beharra dago, ordea, ekonomia eta hari eusten dioten balioak giza eraikuntzak direla, eta etengabe bilakatzen ari direla. Jarduera honen bidez, hain zuzen, ekonomia hegemonikoan nagusi diren balioak indargabetzea bilatzen dugu, ekonomiaren jatorrizko zentzutik hurbilago dauden antolaketa molde kolektiboak bilatzeko.

Helburu didaktikoak



- Gogoeta kritikoa egingo dugu gure kontsumo ohiturei eta desira eta gura materialei buruz.
- Gure kontsumo ereduak beste herri eta latitude batzuetan zer-nolako eragina duen aztertuko dugu.
- Ohartuko gara gaur egun nagusitasuna duen eredu ekonomiko eraikuntza sozial bat dela, eta badaukagula kolektiboki beste modu batera berrantolatzea eta arlo komuna kudeatzeko modu berriak sortzea.



Aurreikusitako denbora

Ordubete.



Beharrezko baliabideak

5 gutun-azal; txartel inprimatuak (eranskinean).



Metodologia

Talde dinamika, jolas kooperatiboa, talde gogoeta.



Jardueraren garapena

Bost txartel eta txartel bakoitzerako gutun-azal bat besterik ez dugu behar. (Irudizko) sarien txartelak aukeratzen joatean datza jolasaren dinamika.

Bi talde jolastuko dira:

- Talde pribilegiatua: poltsa irabazi nahi dutela diotenen artean aukeratutako kideek osatua. Bost lagun izango dira, gehienez, baina haiek hartuko dituzte erabakiak (alegia, haiek erabakiko dute zer gutun-azal ireki). Kide horiek sariak eskuratuko dituzte, baina beren estrategiak ondorioak izango ditu.
- Talde isildua: kide askok osatutako taldea izango da, baina erabakitzeko ahalmenik gabea. Pribilegiatuek irabazitako sarien zama beren gain jausi ahala, esertzen joango dira. Alegia, talde honek jasango ditu pribilegiatuek poltsa bereganatzearen ondorioak.

Jolasak bi fase izango ditu:

1. Lehen fasea: lehia (30')

Talde pribilegiatuak bost txarteletatik hiru aukeratu behar ditu. Ohartarazi behar diegu kontuz ibiltzeko, porrotaren txartela ateraz gero den-dena galduko baitute (haiek ez dakiten arren, ez dago porrotaren txartela duen gutun-azalik). Hala, txartelak aukeratu eta sariak eskuratuz joango dira; baina txartel bakoitzaren ifrentzuan, talde pribilegiatuak eskuratutako sari bakoitzaren trukean talde isilduko kideek jasan beharko duten "zigor" bat agertuko da. Orduan, ifrentzuko zigorraren zergatia azalduko diegu, baita mundu errealean zigor hori nola islatzen den ere; eta talde isilduaren protesta bultzatuko dugu, baita talde pribilegiatuko kideei esan ere jarrai dezatela jolasean, baldin eta benetan nahi badute "poltsa eskuratu".

Talde pribilegiatuak hiru txartelak aukeratutakoan amaituko da lehen fasea. Talde hori sariz gainezka egongo da amaieran, eta, aldiz, talde isilduko kideak eserita eta, beraz, jolasetik kanpo egongo dira, beren lurak utzi behar izan dituztelako, beren elikagaiak bioerregai bihurtu direlako edo saihesteko moduko gaixotasunek jo dituztelako.


2. Bigarren fasea: gogoeta eta ikuspegi kooperatiboko proposamena (30')

Talde handian, lehen fasean zer gertatu den aztertuko dugu:

- Nondik dator pertsona gutxi batzuen aberastasuna?
- Zer ondorio dituzte batzuen ohiturek besteen egoeran?
- Talde isilduko kideen artean, nork jasan ditu ondorio gordinenak? Kasuren batean ikusten da gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunik?
- Gutako bakoitzak munduko errealitatean zer eragin duen nabarmenduko dugu, eta errealitate hori eraldatzeko tokiko proposamenak aurkeztera bultzatuko ditugu.
- Eta, esperientzia honen ondoren, benetan nahi ote dugu "poltsa eskuratu"?

Amaitzeko, esango diegu itzultzeko txartelak; hau da, itzultzeko ohitura kontsumista eta arduragabe horiek. Horrela, jolasetik kanpo gelditutako kideek aukera izango lukete berriro jolasean sartzeko.

Oharra: Txarteletan agertzen diren ondorio edo kalteak jasango dituztenen kopuruak 25 bat laguneko talde baterako pentsatuta daude. Hala, egokitu egin ahal izango dira, jolaserako dugun kide kopuru osoaren arabera. Edonola ere, komeni da talde isilduko kideen kopurua talde osoko kideen kopuruaren % 80 izatea.



Aldaera posibleak

Txarteletan planteatutako gaietan sakontzea. Txartel bakoitzak aukera ematen du erreferentzia egiten dion ekonomia sektorearen gaineko inpaktuei buruzko gogoeta egiteko. "Sari" bakoitzak atxikita duen errealitateari buruz gehiago sakondu nahi izanez gero, hona hemen talde gogoeta sustatzeko galdera batzuk:

1. txartela

(Edukia: erauzte ereduaren inpaktuak, zaharkitze hautemana)

- Uraren kutsaduraz gainera, ezagutzen duzue erauzte industriek (meatzaritzak, petrolio erauzketak...) sor dezaketen beste inpakturik?
- Zuen ustez, zergatik dago telefono mugikorra hain maiz aldatzeko ustezko premia hori? Entzun duzue inoiz zahartze programatua esapidea? Eta zahartze hautemana esapidea?
- Entzun duzue mugikor etikoei buruz ezer? Eta elektronika etikoen aldeko apustua egiten duen mugimenduaz? Haren printzipioen berri jasotzeko bilaketa bizkor bat egitea proposatzen dizuegu.

2. txartela

(Edukia: nekazaritza-industria eredu, elikagai kilometrikoak)

- Zer gizarte eta ingurumen inpaktu eragiten ditu, zuen ustez, gure dieta hainbat kilometrora ekoizten diren elikagaietan oinarritzeak? Zer egoeratan uzten ditu horrek gure lurraldeko baserritarrak? Zer ondorio ditu, energiari dagokionez, elikagaiak toki urrunetatik ekartzeko garraioak?
- Eta, aldiz, zer dinamika sortzen ditu nagusiki tokiko eta sasoiko produktuez elikatzeak?

3. txartela

(Edukia: krisi klimatikoa, lehengaien gorenko maila orokorra)

- Zer neurritan bizkortzen du ibilgailuez egiten dugun erabilerak klima aldaketa?
 - Txartelean aipatzen diren elikagaien ekoizpen eta bilketa zikloetan eragiten dituen aldaketez gainera, zer gehiago dakizue klima aldaketak eragin ditzakeen inpaktuei buruz?
 - Zer gerta daiteke, zuen ustez, petrolio erreserbek gure kontsumo mailari eusteko ahalmena galdu ahala? Eta horri gehituz gero beste material eta lehengai natural batzuk gero eta urriagoak direla?
-
-

4. txartela

(Edukia: ekoizpen jarduerak kanpora ateratzea, bizitzaren prekarizazio globala)

- Begiratu duzue nondik datorren soinean daramazuen arropa? Zuen ustez, zergatik jotzen dute ehungintza enpresek toki horietara?
 - Soldata txikiez gainera, zer beste lan eskubide ez dira babesten ehungintza ekoizpeneko gune horietan?
 - Badakizue zerbait Rana Plazako istripuaz? Bilaketa bizkor bat egitea proposatzen dizuegu, istripu hartan nolako hondamena gertatu zen ikusteko.
 - Zer eskatuko zenioke zuen arropa marka gogokoenari, gizarte eta ingurumen baldintza justuagoak bermatzeko?
-
-

5. txartela

(Edukia: masifikazio turistikoa, gentrifikazioa)

- Ezagutzen duzue inor alde egin behar izan duena bizi zen auzo edo hiritik, alokairua igo diotelako, besteak beste, etxebizitza eta alokairu turistikoen ugartzearen ondorioz? Nolakoak dira haien istorioak?
 - Nola lor daiteke hiri batean turismoa egotea, hirian bizi diren pertsonen bizi kalitateari eutsiz?
-

1. txartela



“Punta-puntako mugikorrik gabe, ez omen gara ezer.
Ez ahal zaizue zuei halakorik gertatuko!
Zuen smartphone gogokoena bizi guztian eskuragarri
izatea eskaintzen dizuegu...”



2. txartela



“Nork dio udan ezin dugula tomaterik jan?
Ez diezaiogun gure buruari plazer hori uka!
Urteko aste guztietan saski bat izango duzue, tomatez,
ananaz, txokolate zoragarri oso merkez
eta orotariko elikagai exotikoz betea...”



3. txartela



“Gustuko duzue gidatzea?
Nahiko zenukete tokirik zailenetara iristeko aukera
ematen duten auto horietako bat noiznahi erabili?
Mugarik gabeko txartel bat izango duzue gasolinazko
zuen ibilgailua nahi adina bider erregaiz betetzeko...”



1. txartela



"...baina kontsumo horri eusteko behar den meatzaritza jarduerak ur erabilgarririk gabe utzi ditu munduko beste toki batzuk, eta, horren ondorioz, talde isilduko 7 kide gaixotu egin dira, eta bertan behera utzi beharko dute jolasa"



2. txartela



"...baina, elikagai horiek urte osoan etxean izan ditzazuen, urruneko herrialdeetatik ekarri behar dira, gai toxiko ugari erabiltzen dira nekazaritzan eta soldata oso txikia ordaintzen zaie elikagaiak ekoitzi dituzten pertsoneri. Egoera horren ondorioz, tokiko nekazariak ez dute tarterik merkatuan, eta talde isilduko 5 emakumek bertan behera utzi beharko dute jolasa."



3. txartela



"...baina mundu erreala baditu, izan, mugak. Zuen ibilgailuek hainbeste berotegi efektuko gas isuriko dituzte, non bizkortu egingo baita klima aldaketa, aldatu egingo baitira urtaroen zikloak, eta talde isilduko 6 kidek, esperotako uztarik jaso ez, eta beren lurretatik alde egin eta beste era batera atera beharko dute bizibidea, hiri handi bateko aldirietan."



4. txartela



"Ez al litzateke zoragarria egunero jantzi berriak estreinatu ahal izateko bezain merkea izatea arropa? Desira onartua!..."



5. txartela



"Ez al da zoragarria mundu osoa esku-eskueran duzula sentitzea?
Txartel infinitu honekin, munduko edozein tokitara joan ahal izango zara turismoa egitera...
Ez kezkatu ostatuaz, edozein tokitara joanda ere, beti izango duzu etxea erdigunean eta merke-merke..."



4. txartela



"...baina jantziak ekoizpen kostutik beherako prezioan saltzeko, talde isilduko 5 emakumek bertan behera utzi beharko dute jolasa eta maquila batean lanean aritu beharko dute ordu luzez, asteburuak barne, eta miseriazko soldata baten truke."



5. txartela




"... turismoaren masifikazioa, ordea, auzo eta hirietako eguneroko bizitza zailtzen ari da. Alokairuak neurrigabe igotzen ari direnez, jendea bere sorlekutik alde egitera behartuta dago, eta hirira bisitan datozenei begirako saltokiak eta zerbitzuak besterik ez daude, ez bertan bizi direnei begirakoak. Egoera hori dela-eta, talde isilduko 3 lagunek bertan behera utzi beharko dute jolasa."



Sarrera

Hiperkontsumoaren gizartean bizi gara, mugarik gabeko kontsumo espiral batean murgilduta; kontsumoak halako indarra nolatan duen azaltzeko, ezinbestekoa da kontuan hartzea haren katalizatzaile nagusietako bat: publizitatea. Gure gizarteetan, bakoitzak 3.000 eta 5.000 bitarte publizitate inpaktu jasotzen ditugu egunean, kontsumi dezagun; kontsumismo horrek ukatu egiten ditu ekonomia kapitalistaren gizarte eta ingurumen mugak, mugarik gabe ekoizten eta kontsumitzen jarrai dezakegulako ideia faltsuan oinarriturik. Jarduera honetan, gogoetarako tarte bat proposatzen dugu, publizitate kanpainen bidez igortzen dizkiguten mezuak aztertzeko, eta jabetzeko nola bat egiten duten balio kapitalistekin, kapitalismoaren ekoizpen jardueraren alderdi iluna ezkutatuta.

Helburu didaktikoak



- Publizitate kanpainen atzean ezkutatzen diren balioen azterketa kritikoa egingo dugu.
- Gogoeta egingo dugu publizitateaz, jabetzeko nola sustatzen eta sendotzen dituen ekonomia kapitalistari eusten dioten balio gailenak: indibidualismoa, hiperkontsumismoa, kultura homogeneizazioa, materialismoa.
- Aztertuko dugu publizitatea tresna baliagarria izan daitekeela beren jarduerarekin gizarte eta ingurumen inpaktu larriak sortzen dituzten multinazionalen irudia garbitzeko.



Aurreikusitako denbora | Ordubete.



Beharrezko baliabideak | Publizitate kartelen kopiak (eranskinean daude); kontrapublizitateko ariketa egiteko materialak (koloretako folioak, kartoi meheak, errotiladoreak, arkatzak...).



Metodologia | Talde dinamika, talde gogoeta, sormenezko diseinua.



Jardueraren garapena

1. Taldeak osatzea (5')

Talde osoa 2-5 taldetan antolatuko dugu. Talde bakoitzari publizitateko kartel bat emango diogu.

2. Talde lana: zer dago kanpaina bakoitzaren atzean? (25')

Talde bakoitzak bere publizitate kartelari buruzko galderen gaineko gogoeta egingo du:

Kanpaina: "Naturarentzako oparia".

- Zer ideia iradokitzen du kanpaina honetarako aukeratutako esloganak?
- Nola larriagotzen du iragarki honek gaur egungo krisi ekologikoa?
- "Auto ekologikoak" badirela zabaldu da. Zer lortu nahi da esapide hori erabiliz?

Kanpaina: "Ongi etorri mundu garbiago batera".

- Iragarki honek esaten duena soilik kontuan hartuz gero, zenbaterainoko pisua dute energia berriztagarriek enpresa honetan? Bila ezazue datu erreala, enpresa honen energia iturri nagusia zein den ondorioztatzeko.
- Zer iradokitzen du kartelean agertzen den emakumearen irudiak? Zer iradokiko luke gizon bat agertuko balitz jarrera berean eta gauza bera egiten?

Kanpaina: "Zoriona, zure aurrerabidea".

- Zoriona lortzeko zer bide proposatzen dute kanpaina honetan?
- Aurrerabidearen zer ideia dago iragarki honen atzean?
- Zer inpaktu izan ditzake edari azukredun gehiegi hartzeak?

Kanpaina: "Jainkoaren bideak ezin asmatuzkoak ziren".

- Gaur egungo krisi ekologikoari dagokionez, zer planteamendu egiten du publizitate kanpaina honek?
- Ekonomiak ingurumen mugak errespetatzeari buruz, zer adierazten digu iragarki honek?

Kanpaina: "Gozatu gehiago bizitzaz. Lortu gehiago".

- Zer bizimodurekin lotzen du kanpaina honek bizitzaren gozamena?
- Zer gizarte eta ingurumen inpaktu dakartza iragarki honek proposatzen duen gozamenaren bideari jarraitzeko?
- Nola kontrajartzen zaie hazkunde mugagabea ("lortu gehiago") planetaren mugei eta pertsonen elkarrekiko mendekotasun edo interdependentziari?

Talde handian, lantaldeetan aipatutako ideia nagusi batzuk azalduko ditugu, oinarritzko gogoetak partekatzeko.

3. Diseina ditzagun gure kanpainak... salatzeko! (30')

Talde bakoitzean egindako gogoetak kontuan hartuta, aztergai izan duten publizitate kanpainari buruzko kontrapublizitateko ariketa bat egingo du kide/talde bakoitzak. Publizitatearen mezuen edukiak aldatuz kritika egitean datza kontrapublizitatea. Asmoa zera da: iragarkien parodia egitea, zer ezkutatzen duten azalera ateratzea, bizi garen kontsumo gizarte honen inpaktuak agerian uztea.

Horretarako, egoki irizten dieten materialak erabili ahal izango dituzte: errotuladoreak, kartoi meheak, koloretako arkatzak... Eta sormenak egin dezala gainerako lana!

Amaitzeko, lanak gelan zintzilika daitezke, kontrapublizitateko erakusketa areto bat balitz bezala.


Oharra: Proposamenaren urrats honetan taldearen sormena sustatu nahi denez, tarte hau minutu batzuk gehiago luza daiteke, jarduerak guztira ordu eta erdi hartu arte. Zenbat denbora dugun eta taldeak beren kanpainak diseinatzeko zenbat denbora behar duen kontuan hartu beharko dugu.

Material lagungarria

Orrialde honetan ConsumeHastaMorir (Hil Arte Kontsumitu) kanpainarako sortutako material guztiak aurki eta deskarga daitezke:
www.letra.org/2018/09/08/descargachm

Zehazki, material hauek topatuko dituzue webgune horretan, besteak beste:

- Kontrapublizitateko 400 kartel edo afixa, PDFn, inprimatzeko moduan.
- *Contrapublicidad* liburua, testu eta kontrairagarkiekin.
- "Gran Superficie" bideo dokumentala, 2005, 60 minutu.
- Bideo laburrak eta ikus-entzunezko kontrairagarkiak, ConsumeHastaMorir.
- ConsumeHastaMorir Kontrapublizitate grafikoko eta sormeneko gidaliburua, SETEM, 2015.
- *Relatos sobre cosas que aún no están en venta* liburua.
- *Publicidad machista: análisis de publicidad y taller de creación contrapublicitaria* txostena.
- Malababa kontrapublizitateko aldizkaria.
- Ekologistak Martxan elkartearen "¿Consumimos felicidad?" proiektua.



Aldaera posibleak

Formatua aldatzea, publizitateko spotak. Jarduera hau egiteko, spotak erabil daitezke (bideo komertzial laburrak), publizitateko kartelak erabili ordez. Hala egitekotan, mugikorrek erabiliz kontrapublizitateko bideo laburrak egitea proposa diezaiokegu taldeari.

1. Eranskina (1.2. Jarduera). Publizitate kanpainetako irudiak

Kanpaina:

"Opari bat naturarentzat"



Kanpaina:

"Ongi etorri mundu garbiago batera"



ENERGÍA VERDE

 **IBERDROLA**

Bienvenido a un mundo más limpio.

Ya puedes contribuir a la protección del medio ambiente. Apúntate ya a la Energía Verde, apúntate al desarrollo sostenible y el cuidado del medio ambiente, porque la Energía Verde Iberdrola se genera exclusivamente con fuentes de energía 100% renovables.

Pulsa SELEC para saber más...


IBERDROLA
Queremos ser tu energía


Kanpaina:

“Zoriona, zure aurrerabidea”



Kanpaina:


"Jainkoaren bideak ezin asmatuzkoak ziren"



LOS CAMINOS DEL SEÑOR
ERAN INESCRUTABLES.

EXPLORER

Nº1 EN USA
Y EN EL
MUNDO



Kanpaina:

"Gozatu gehiago bizitzaz. Lortu gehiago"



The advertisement features a white Nokia Lumia 900 smartphone as the central focus, angled towards the viewer. The screen displays the Windows Phone interface with various live tiles for Phone, People, LinkedIn, Photos, Internet Explorer, and Xbox. The phone is set against a background of colorful, overlapping rectangular shapes in shades of blue, green, and purple. In the bottom left corner, there is a white award badge that reads "BEST OF CES 2012 WINNER" with the CNET logo below it. To the right of the phone, the text "Nokia Lumia 900" is written in a large, bold, white font. Below this, the slogan "Disfruta más de la vida. Consigue más." is displayed in a slightly smaller white font. Underneath the slogan, a smaller line of text reads "Nokia Lumia 900. Una forma extremadamente rápida de conectarte." In the bottom right corner, there is a white arrow pointing right followed by the text "Iniciar la visita". At the very bottom right, the Windows Phone logo and the text "Windows Phone" are visible.

Nokia Lumia 900

Disfruta más de la vida. Consigue más.

Nokia Lumia 900. Una forma extremadamente rápida de conectarte.


> Iniciar la visita

Windows Phone

Sarrera

Emakumeek garai eta toki guztietan parte hartu izan dute ekonomian, baina ez dute izan merezitako ikusgarritasun eta aitortzarik. Hori dela-eta, jarduera honen bidez, ekonomian parte hartu duten zenbait emakume ezagutu nahi ditugu, baina baita hainbat organizazio eta talde ere; izan ere, bereziki nabarmendu behar da taldetasun horren garrantzia, nahiz izen propio batzuk ikusgarri egitea beharrezkoa izan. Emakume eta talde horien guztien eskutik, ekonomia kapitalistaren alternatiba gisa ageri diren zenbait joera aztertuko ditugu, begirada alternatibo horiek aberasten dituzten joera feministekin batera.

Helburu didaktikoak



- Azalera aterako dugu ekonomia gizarte eraikuntza dela, eta unean-unean gizartea gidatzen duten balioak sustatzen dituela eraikuntza horrek.
- Gogoeta kritikoak egingo dugu ekonomian parte hartu duten askotariko ikuspegiez.
- Emakume jakin batzuk ezagutuko ditugu, baita zenbait talde eta organizazio ere, eta horiek ekonomiari egindako ekarpenak.
- Ekonomia kapitalistaren alternatiba gisa ageri diren zenbait joera aztertuko ditugu, gizarte eta ingurumen arloetako beste ikuspegi batzuekin batera, eta jakintzari buruzko ikuspegi holistikoa sustatuko dugu horrela.



Aurreikusitako denbora

Ordubeteko 3 saio.



Beharrezko baliabideak

Emakumeen eta taldeen zerrenda (I. eranskinean); Interneterako sarbidea eta sartzeko gailu elektronikoak; talde bakoitzarentzako emakume eta taldeen fitxa bana (II. eranskinean); talde bakoitzarentzako denbora lerro bana (III. eranskinean); talde bakoitzarentzako mapa geografiko bana (IV. eranskinean).



Metodologia

Talde dinamika, taldeko ikerlana, talde gogoeta.



Jardueraren garapena

Lehen saioa

1. Ikerketarako menua aurkeztea (5')

I. eranskinetako taulan, 18 talde edo emakumek osatutako menu bat aurkituko duzue, horiei buruzko ikerlana egiteko.

Binaka edo talde txikitan lan egitea gomendatzen dugu, bikote/talde bakoitzak zerrendako talde edo emakume bat edo bi aukeratuta (2 ikertzekotan, emakume bat eta talde bat izatea komeni da, eta bikote ahalik eta heterogeneoak hautatzea).

2. Talde lana: ikerlana (50')

Talde bakoitzak egokitu zaion emakume edo/eta taldeari buruzko ikerketa egingo du, eta, ondoren, II. eranskinetako fitxan aurkitutako informazioa adieraziko dute.

Hala behar izanez gero, ikerketarako aurreikusitako ordutegitik kanpo jarraitu ahal izango dute ikerlana osatzen.

Bigarren saioa

3. Ikerketen berri ematea eta osatzea (1h)

Talde bakoitzak bere ikerketa aurkeztuko du. Aurkezpena amaitutakoan, gainerako taldeek galdera bana egingo diete, fitxa osatzeko informazioa bil dezaten; horrela, gainerako taldeen entzute aktiboa erraztuko dugu.

Aurkezpena amaitzean, talde bakoitzak gainerako taldeek egindako galderekin osatuko du bere ikerlana.

Hala behar izanez gero, gelan ikerketarako aurreikusitako ordutegitik kanpo jarraitu ahal izango dute ikerlana osatzen.

Hirugarren saioa

4. Aurrerapenak partekatzea eta horien berri ematea (10' + 20')

Taldeak binaka elkartuko dira. Talde bakoitzak beste taldeari kontatuko dio zer aurrerapen egin dituen ikerketan, eta beste taldeak emango du aurrerapen horien berri talde handian elkartutakoan.

5. Talde lana: mapa geografikoa eta denbora lerroa egitea (15')

Taldeek osatutako fitxak banatuko ditugu, talde bakoitzarenak beste talde bati; alegia, talde bakoitzari fitxa bat emango zaio, baina ez berak landutako ikerketa nagusiari dagokiona, ezta aurreko puntuan aipatutako talde handian aurkeztea egokitu zaionari dagokiona ere.

Talde bakoitzak denbora lerroan (III. eranskinean dago denbora lerroa) eta mapa geografiko batean (IV. eranskinean dago) kokatuko du egokitu zaion emakumea edo taldea.

Horrela, bisualki jabetuko dira emakumeek eta taldeek historiako garai bakoitzean eta mundu osoan ekonomiari egindako ekarpenez.

6. Talde gogoeta: emakumeek ekonomian utzitako arrastoa (15')

Amaitzeko, gure gomendioa da talde gogoetarako eta eztabaidarako tarte txiki batez amaitzea saioa eta, beraz, jarduera, 3 saioetan zehar landutako gaiak finkatzeko. Hona hemen amaierako gogoeta sustatzeko galdera lagungarri batzuk:

- Ezagutzen zenituzten aztergai izan ditugun emakume eta talde horiek? Zer iritzi duzue ekonomiari egin dizkioten ekarpenez?
- Ezagutzen zenituzten joera horiek, ekonomikoak eta feministak? Zer iritzi duzue ekonomiari egin dizkioten ekarpenez?
- Jabetuta al zeundeten emakumeak baztertuta edo ezkutuan zeudela ekonomia-
ren historian (emakume zehatzak nahiz taldeak)? Zer sentiarazten dizue egoera horrek? Berdintasunik gabeko egoera bat dela iruditzen zaizue?
- Zergatik da garrantzizkoa, zuen ustez, emakume eta talde horiek nahiz joera horiek ezagutzea eta ezagutaraztea?

Material lagungarria

Taula lagungarria, I. eranskinean proposatutako talde eta emakumeei buruzko informazio garatuarekin.

Taldea / emakumea	Deskribapen laburra	Zeri lotua... (besteak beste)	Garaia	Tokia
Emakume anonimoen taldea				
Emakume anonimoak	Emakumeek historiaren hasieratik egin izan dute ekarpena etxeko ekonomian. Are gehiago: grezierazko oikonomo hitzetik dator ekonomia hitza, eta etxearen administrazioa esan nahi du.		Antzinaroa-gaur egun	Toki guztiak
Emakume anonimoak	Garai hartan, emakumeek gizarteko ekoizpen sektore gehienetan parte hartzen zuten. Baziren emakume ehuleak, iruleak, baratzeko produktuen saltzaileak, etxea hornitzeko eginbeharretan aritzen zirenak, etab.		Erdi Aroa	Toki guztiak
Emakumeak				
Mary Wollscraft (1759-1797)	Idazle eta filosofoa. <i>Vindicación de los derechos de la mujer</i> (1792) obraren egilea. Obra horretan aldarrikatzen du emakumeak ez direla izatez gizonak baino gutxiago; gizonen heziketa bera jasotzen ez dutelako diruditela gutxiago.	Mendebaldeko feminismoa Arrazionalismoa	Aro Modernoa (XVIII. m.)	Ingalaterra (Europa)
Rosa Luxemburgo (1871-1919)	Teorialari marxista. Polonian eta Alemanian garatu zuen bere militantzia politikoa. Poloniako Alderdi Sozialdemokrataren burua izan zen. Alemaniako Alderdi Komunista izango zenaren kidea ere izan zen, hasieratik. Ekonomia marxistaren esparruan erreferentziazkoak diren zenbait liburu idatzi zituen.	Marxismoa Sozialismoa Feminismoa Ekonomia politikoa	Aro Garaikidea (XIX-XX. m.)	Polonia (Europa)

Emakumeak				
Alexandra Kollontái (1872-1952)	Errusiar politikari eta marxista. Ekarpenak egin zituen enpresen eta sindikatuen autogestioaren defentsaren ildotik. Ikerketak egin zituen bizi baldintzei, eta langileriaren lanari eta industriarekin duen erlazioari buruz.	Marxismoa Sozialismoa Feminismoa Ekonomia politikoa	Aro Garaikidea (XIX-XX. m.)	Errusia (Asia)
Elinor Ostrom (1933-2012)	Ekonomista, Ekonomiako Nobel saria irabazi zuen lehen emakumea. Pertsona erabiltzaileen organizazioek jabetza publikoa arrakastaz kudeatzeko moduak bilatzen eta ebaluatzen lan egin zuen.	Ondasun komunak Ekologismoa	Aro Garaikidea (XX-XXI. m.)	AEB (Ipar Amerika)
Yolanda Jubeto	Zientzia ekonomikoetan doktorea, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I saileko irakaslea eta zenbait gizarte mugimendu eta organizaziotako militantea, feminismoaren arloan, batik bat. Argitalpen ugari plazaratu ditu ekonomia feministari, genero ikuspegia aurrekontuetan txertatzeari, bizitzaren jasangarritasunaren proposamenari eta ikuspegi kritikotik egindako garapenaren gaineko azterketei buruz.	Bizimodu ona Ekonomia feminista Ekonomia solidarioa	Aro Garaikidea (XX-XXI. m.)	Euskal Herria
Magdalena León (1959-)	Ekudortar ekonomista eta ikertzailea, ekonomia feministan, ekonomia solidarioan eta garapenarekiko eta haren inplikazio ekonomikoekiko paradigma alternatibo gisa aurkezten duen bizimodu onean espezializatua. 2009 eta 2013 bitartean Ekuadorko Bizimodu Onaren Plan Nazionala formulatzeko taldeko kidea izan zen.	Bizimodu ona Ekonomia feminista Ekonomia solidarioa	Edad contemporánea (S. XX-XXI)	Ekudor (Latinoamerika)


Emakumeak				
Yayo Herrero (1965-)	Espainiar antropologo, ingeniari, irakasle eta ekintzaile ekofeminista; ekofeminismoaren esparruko Europako aitzindarietako bat da. Zenbait organizaziorekin lankidetzan dihardu, adibidez, Ekologistak Martxan eta FUHEM taldeekin. Ekoizpen eta garapen eredu kapitalistaren ondorioz gaur egun bizi dugun krisi ekologikoa du aztergai. Bizitza jasangarri egiten duten lanei dagokien balioa aitortzea eta bizi garen planetaren mugak aintzat hartzeko premia aldarrikatzen ditu.	Ekofeminismoa Ekonomia ekologikoa Ekonomia feminista	Aro Garaikidea (XX-XXI. m.)	Espainiako estatua (Europa)
Amaia Pérez Orozco (1977-)	Ekonomista, eta aditua ekonomia feministan edo, berak esan ohi duenez, "ekonomiaren gaineko ikuspegi feministetan". Gainera, era aktiboan parte hartzen du gizarte mugimenduetan, eta, besteak beste, Subversión feminista de la economía liburua argitaratu du berriki. Liburu horretan, sistemaren kritika sakona egiten du, eta bizitzaren jasangarritasunaren kontzeptuan sakontzen du.	Ekonomia feminista	Aro Garaikidea (XX-XXI. m.)	Espainiako estatua (Europa)
Gizarte eta ingurumen taldeak eta organizazioak				
Acción ecológica	Ekudorko organizazioa, gero eta gizarte jasangarriagoak sustatzen diharduten ekologista erradikalen eta, hortaz, integralen talde gisa definitzen duena bere burua. Gizarte eta ingurumen gatazkei aurre egiteaz arduratzen diren tokiko organizazioen erresistentziako prozesuak babesten dituzte. Azkenaldian, naturaren eta bizimodu onaren eskubideen defentsari heldu diote, gizarte bidezkoago eta ekitatiboago batean bizi ahal izateko egin beharreko bidea horixe dela iritzita. Sarean lan egiten dute organizazio askorekin, Latinoamerikan, naguski.	Ekonomia ekologikoa Ekologismoa Herri ekologismoa Bizimodu ona Post-eraztea	Aro Garaikidea (XX-XXI. m.)	Ekudorko estatua (Latinoamerika)

Gizarte eta ingurumen taldeak eta organizazioak

<p>Movimiento Cinturón Verde</p>	<p>1977an sortu zuen Wangari Muta Maathaik, Kenyako Emakumeen Kontseilu Nazionalarekin batera. Ingurumena babesteaz arduratzen da, Afrikako emakumeei eta haien familia inguruneari arreta emanez, eta ekimen eta bizi baldintza jasagarriak izaten lagunduz emakume horiei, basogintzaren eta erlezaintzaren bidez diru <i>Sarrerak</i> eskuratzeko prestakuntza eskaintzen baitie. Gaur egun, 4.000 talde komunitariotik gora biltzen ditu Kenyan, zuhaitzak landatzen eta ingurumena babesteko lanean dihardutenak.</p>	<p>Ekologia Ekonomia ekologikoa Feminismoa</p>	<p>Aro Garaikidea (XX-XXI. m.)</p>	<p>Kenya (Afrika)</p>
<p>Tzk'at, Red de Sanadoras Ancestrales del Feminismo Comunitario de Iximulew-Guatemala</p>	<p>Sare hau 2015ean sortu zen, Guatemalan (Ixumulew), eta beren burua feminista komunitariotzat duten emakume maiek osatuta dago. Kriminalizazioari eta judizializazioari aurre eginez arbasoen lurraldeak defendatzen dituzten eta beren komunitatearen bizitzaren alde borrokatzen diren emakume indigenen suspertze emozional eta espiritualeko prozesuetan parte hartzen dute sarearen bidez.</p>	<p>Feminismo komunitarioa Ekologia politiko kritikoa Gorputza-lurra territorioaren defentsa</p>	<p>Aro Garaikidea (XX-XXI. m.)</p>	<p>Guatemala (Latinoamerika)</p>
<p>Etxaldeko Emakumeak</p>	<p>Askotariko profiletako emakumeek osaturiko euskal taldea: baserritarrak, landa eremuko emakumeak eta elikadura subiranotasunaren proposamenari loturiko emakumeak biltzen ditu. Agroekofeministotik abiatuta, honako helburu hauek lortzeko lan egiten dute: elikadura subiranotasuna feminismora hedatzea, eta feminismoa nekazarien mugimendura hedatzea. Emakume baserritarren partaidetza eta bizi kalitatea hobetzearen aldeko tokiko politika publikoak inplementatzea aldarrikatzen dute.</p>	<p>Elikadura subiranotasuna Agroekofemimismoa</p>	<p>Aro Garaikidea (XXI. m.)</p>	<p>Euskal Herria</p>

Gizarte eta ingurumen taldeak eta organizazioak

<p>Feminismos desazkundera</p>	<p>Euskal taldea, desazkunderaren ikuspegi ekofeminista bultzatzen duena, diskurtsoan nahiz eguneroko jardunean. Desazkunderari buruzko lanak idatzi dituzten gehienak gizonak direla eta ikuspegi nahiko androzentrikoa dutela kontuan harturik, Feminismos Desazkunderaren apustua da paradigma horren berrikuspena egitea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari heltzeko. Beren eztabaida eta ekarpen nagusiak bizitzea merezi duten bizitzak eta bizitza horiek izateko beharrezko gizarte antolaketa bilatzeari lotuak dira.</p>	<p>Ekofeminismoa Desazkundera</p>	<p>Aro Garaikidea (XXI. m.)</p>	<p>Euskal Herria</p>
<p>Kinal Antsetik</p>	<p>1992an sortu zen Kinal Antsetik, A.C. ("Emakumeen Lurra", maia tseltaleraz) mexikar elkarte zibila. Emakumeek eta emakumeentzat osatutako elkarte da, eta helburua du emakumeek beren komunitateetan bizimodu hobea izatea. Elkartearen Jolom Mayaetik kooperatibak 250 emakume ehule biltzen ditu, ehungintza tradizionala lantzen eta beren lanaren balio kultural eta ekonomikoa aldarrikatzen dihardutenak. Askotariko jatorrietakoak izanik, taldeko emakume guztien artean aberastu egin dituzte beren diseinuetako sinbologia eta teknikak.</p>	<p>Ekonomia feminista Ekonomia sozial eta solidarioa Kooperatibismoa Jabetza intelektual kolektiboa</p>	<p>Aro Garaikidea (XXI. m.)</p>	<p>Espainiako estatua</p>
<p>Pandora Mirabilia</p>	<p>Emakumeek osatutako lan kooperatiba, joera feministakoa eta diziplina anitz biltzen dituena. Sarean lan egiten du beste kooperatiba batzuekin, eta Madrilgo ekonomia sozial eta solidarioaren parte da; besteak beste, Madrilgo Merkatu Sozialaren parte.</p> <p>Ekonomia autogestionatuaren jasangarritasuna lantzen duten kooperatiben adibide da, bere kideen ongizaterako funtsezko beste zeregin batzuen balioa nabarmentzeko tresnak aldarrikatzen baititu.</p>	<p>Ekonomia feminista Feminismoa Ekonomia sozial eta solidarioa Kooperatibismoa</p>	<p>Aro Garaikidea (XXI. m.)</p>	<p>Espainiako estatua</p>



Denbora gutxiago hartzea eta eduki gutxiagotan sakontzea

Planteatu den jarduera proposamena formatu hedatukoa da, denboraz nahiz edukiz, baina aldaketak egin daitezke denboran eta edukian. Aukera bat da jarduera egiteko denbora gutxiago erabiltzea, adibidez, ikerlan murriztagoa eginez, jardueraren parte bat ezabatuz edo ikerlanen berri emateko partaidetza murriztuz. Beste aukera bat da sakondu beharreko edukiak murriztea. I. eranskinean emakumeen eta taldeen taula bat agertzen da (material lagungarrian); hain zuzen ere, 2 emakume talde anonimo, 8 talde edo organizazio eta 8 emakume zehatz agertzen dira taula horretan. Nahi izanez gero, erdira edo egoki irizten zaion neurrira murriztu daiteke taula hori; horrela, sakonago landu ahal izango dira hautatutako gaiak, eta denbora gutxiagoan egin ahal izango dugu jarduera. Edukiak murriztekotan, nolana ere, gomendatzen dugu aukera ahalik eta heterogeneoena egitea, joerei dagokienez nahiz garai eta tokiei dagokienez.

Artikuluen bidezko ikerketa:

Beste aukera bat da jardueran aipatutako emakume eta taldeen artikulua, aldizkariak, etab. ematea, ikerlana egiteko. Horrela, zenbait aukera planteatu daitezke jarduera garatzeko, dagokion taldearen interesen arabera.

Horretarako, material lagungarriko taulan agertzen diren erreferentziei buruzko hurrengo estekak erabili daitezke:

- Mujeres anónimas (liburua: 2. kapitulua, 85. or.):
<https://bit.ly/35aT3CB>
- Mary Wollscraft (iritzi artikulua): <https://bit.ly/358AQWt>
- Alejandra Kollantái (iritzi artikulua): <https://bit.ly/2sdOsku>
- Rosa Luxemburgo (iritzi artikulua): <https://bit.ly/2qloLly>
- Elinor Ostrom (iritzi artikulua): <https://bit.ly/354hFNn>
- Yolanda Jubeto (elkarrizketa, Mertxe Larrañagarekin):
<https://bit.ly/2LIH8UV>
- Magdalena León (elkarrizketa): <https://bit.ly/2P6QVq2>
- Yayo Herrero (bideoa): <https://bit.ly/2qDSguV>
- Amaia Pérez Orozco (elkarrizketa): <https://bit.ly/38sgZ6m>
- Acción Ecológica (iritzi artikulua): <https://bit.ly/354illT>

- Movimiento Cinturón Verde (iritzi artikulua): <https://bit.ly/2P9auOh>
 - Tzkat, Red de Sanadoras Ancestrales del Feminismo Comunitario de Iximulew-Guatemala (iritzi artikulua): <https://bit.ly/356sMFG>
 - Etxaldeko emakumeak (talde gogoetarako dokumentua): <https://bit.ly/2YCBWHf>.
 - Feminismos desazkundera (artikulua, 17. or): <https://bit.ly/2Pc17xz>
 - Kinal Antsetik (topaketaren kontaketa): <https://bit.ly/38skJEW>
 - Pandora Mirabilia (elkarrizketa): <https://bit.ly/36qQhcN>
-

I. Eranskina (2.1. Jarduera):

Organizazio edo taldeen eta emakumeen zerrenda

Emakume anonimoen taldea
Emakume anonimoak (1)
Emakume anonimoak (2)
Emakumeak
Mary Wollscraft
Rosa Luxemburgo
Alexandra Kollontái
Elinor Ostrom
Yolanda Jubeto
Magdalena León
Yayo Herrero
Amaia Pérez de Orozco
Gizarte eta ingurumen arloko talde eta organizazio sozialak
Acción ecológica
Movimiento Cinturón Verde
Tzk'at, Red de Sanadoras Ancestrales del Feminismo Comunitario de Iximulew-Guatemala
Etxaldeko emakumeak
Feminismos desazkundera
Kinal Antsetik
Pandora Mirabilia

II. Eranskina (2.1. Jarduera):

Organizazio edo taldeen/emakumeen fitxa


Izen osoa:
Jatorria:
Non lan egiten duen:
Garaia:
Ekonomiari egindako ekarpen nagusiak:
Aukeratu dagokion taldea edo emakumea lotzen zaion joeretako bat. Garatu informazio hau:	
Non sortua den:
Nagusiki non garatzen den:
Noiz sortu zen:
Nagusiki noiz garatu zen:
Adierazi, zure hitzetan, zure ustez zer balio, ideia edo/eta proposamen defendatzen dituen nagusiki:
[BIGARREN FASEA, lehen sozializazio edo aurkezpenaren ondoren] Fitxa osatzea	
(1. taldearentzako galdera)
(2. taldearentzako galdera)
(3. taldearentzako galdera)
(4. taldearentzako galdera)
(5. taldearentzako galdera)
(6. taldearentzako galdera)
(7. taldearentzako galdera)
(8. taldearentzako galdera)

III. Eranskina (2.1. Jarduera):

Denbora lerroa

Antzinaroa (IV. mendera arte, gutxi gorabehera)	Erdi Aroa (V-XV. mendeen artean, gutxi gorabehera)	Aro Modernoa (XV-XVIII. mendeen artean, gutxi gorabehera)	Aro Garaikidea (XIX. m.-gaur egun)
---	--	---	--

IV. Eranskina (2.1. Jarduera): Mapa geografikoa



MMapa mundia, Petersen proiektioaren arabera.



Jardueraren garapena

1. Bideoa ikustea: "Decrecimiento en 1 minuto" (5')

"Decrecimiento en 1 minuto" bideoa ikusiz hasiko dugu saioa; bideo horrek aukera emango baitigu landuko dugun gaiari buruzko Sarrera egiteko, modu hurbil eta atseginean.

2. Talde gogoeta: desazkundearen proposamena (20')

Proposatutako bideoa elkarrekin ikusi ondoren, talde gogoetarako tarte txiki bat hartuko dugu. Hona hemen eztabaida dinamizatzeko lagungarriak izan daitezkeen zenbait galdera:

- Bideoaren zer ideia nagusi nabarmenduko zenituzkete?
- Entzun duzue inoiz desazkundeari buruz ezer? Zer testuingurutan? Eta hazkundeari buruz? Zer testuingurutan? Zer motatako hazkundearen entzutea duzue?
- Bideoa ikusi ondoren, nola definituko zenukete desazkundea? Paradigmaren zer alderdi nabarmenduko zenukete?
- Zer da, zuentzat, bizitzeko poza merezi duen bizitza bat? Eta, ikuspegi globaletik, zer baldintza edo ezaugarri joko zenituzkete bizitzeko poza merezi duen bizitza bat izateko beharrezkotzat?
- Bideoan, ekodependentzia eta interdependentzia aipatzen dira. Lehendik entzunak zenituzten kontzeptu horiek? Zer testuingurutan? Zer ondorio izan ditzake ikuspegi horiek kontuan ez hartzeak? Eta horiek kontuan hartzeak?

3. Bakarkako lana: ikasle (etorkizuneko langile) perretxikoaren testa (10')

Kide bakoitzari ikasle (etorkizuneko langile) perretxikoaren testa emango diogu (eranskinean aurkituko duzu). Bakarka erantzun behar diete galderei. Garrantzizkoa da ohartaraztea beren egunerokotasunaren arabera erantzun behar dutela.

Oharra: Kontuan hartu bizitzako etapa bakoitzean behar izaten diren zaintzak. Testa 16-20 urte bitarteko ikasleentzat prestatu da, gutxi gorabehera. Nolanahi ere, gomendatzen dizuegu kontuan hartzea testa betetzen duten pertsonen adina, eta, ahal izanez gero, egin beharreko aldaketak egitea testari, bizitzako ziklo bakoitzean behar diren zaintzei modu espezifikagoan egokitzeke.


4. Talde gogoeta: ekodependentziaren eta interdependentziaren gizarterantz (20')

Saioa amaitzeko, talde eztabaida eta gogoeta egingo dugu, berriro. Hona hemen laguntza modura erabiltzeko galdera batzuk:

- Zer ondorioztatzen duzue aurreko testa erantzun ondoren?
- Zuen ustez, genero desberdintasunak sumatzen dira lan jakin batzuetan? Zehazki, zer lanetan ikusten dituzue desberdintasunak?
- Ezagutzen duzue zama mentala kontzeptua? (Emma Clitek gai honi buruz egindako No me lo has pedido komikirako esteka duzue material lagungarrian). Zuen ustez nola banatzen da zama mentala zuen ingurune hurbilean (etxean, eskolan, aisian...)? Iruditzen zaizue nolabaiteko zama mentala duzuela zuen gain? Zer arlotan? Testeko 11., 12. eta 15. galderak dagozkio kontzeptu honi.
- Saioaren hasieran, ekodependentziaren eta interdependentziaren kontzeptuak aipatu ditugu. Itzul gaitezen berriro kontzeptu horietara, testa egin ondoren. Gogoeta berririk eragiten dizuete? Aipatu zuen interdependentziari loturiko pertsona batzuk (zehaztu, ahal izanez gero, zer zentzutan duzuen pertsona horiekiko interdependentzia). Aipatu bereziki zer egoeratan jabetzen zareten zuen ekodependentziaz (zehaztu, ahal izanez gero, ekodependentzia hori zertan datzan).
- Zuen ustez, gaur egun, gizarteak balio aski ematen die zaintza lanei? Zuen iritzian, zer motatako lanei eman beharko litzaieke balio handiagoa, bizitzaren jasangarritasuna jartzeko gizarte antolaketaren erdigunean?
- Gizartean balio oso handia aitortzen zaien lan batzuk eta ia ikusezinak diren beste batzuk egoteak zer eragin du, zuen ustez, lan arloan? Lana prekarizatzea dakar? Areagotu egiten ditu genero, etnia, gizarte joera eta abarregatikoko desberdintasunak?

Material lagungarria

- Decrecimiento en 1 minuto bideoaren esteka: <https://bit.ly/2Yz7Cxr>
- Zama mentalaren kontzeptuari buruzko Emma Cliten "No me lo has pedido" komikiaren esteka: <https://bit.ly/346DSZR>



Aldaera posibleak

Testean sakontzea

Testaren galderak erantzun itxia emateko moduan formulatuta daude (bai/ez). Aukera bat da blokeetako bakoitzean sakontzea, eta, ondoren, eztabaida formatua edo talde lana erabiliz lana osatzeko tarte bat hartzea; galdera batzuetan sakontzeko aukera emango digu horrek.

Era honetako galderak erabil litezke:

- Etxeko blokean: nola parte hartzen duzue etxeko garbiketan? Zer eginkizun zehatzez arduratzen zarete, eta zenbaterainoko arduraz? Arropa hondatuz gero hura konpontzeko ohitura baduzue, nork konpontzen du? Etxeko norbaitek? Dendaren batera eramaten duzue? Zer-nolako enpresa da (txikia-handia, tokikoa-frankizia...)? Lan egiten baduzue, edo paga jasotzen baduzue, nola kudeatzen duzue zuen dirua? Hondakinen kudeaketari dagokionez, zer beste neurri hartzen duzue (esaterako, ur gutxiago erabiltzeko, hondakinak kudeatzeko...)?
 - Ikastetxearen blokean: zer harreman duzue gainerako ikaskideekin, irakasleekin, etab.?
 - Aisiaren blokean: mapatu aisian egiten dituzuen jarduerak. Gero, mapa hori azter daiteke sakonera gutxi-asko handiaz, honako irizpide hauen arabera: badago sexu/genero, ekonomia, etnia... arrazoiengatiko desberdintasunik jarduera motaren arabera?, nolakoak?
-

Eranskina (2.2. Jarduera).

Ikasle (etorkizuneko langile) perretxikoaren testa

I. Etxea		
Garbiketa		
1. Zure logela txukuntzen duzu?	Bai	Ez
2. Ohea egunero egiten duzu?	Bai	Ez
3. Garbigailua jartzen duzu?	Bai	Ez
4. Arropa esekitzen duzu?	Bai	Ez
5. Lisatzen duzu?	Bai	Ez
6. Arropa lehor/lisatuta dagoenean, jaso eta armairuan gordetzen duzu?	Bai	Ez
7. Etxeko garbiketari parte hartzen duzu?	Bai	Ez
Hornidura, elikadura		
8. Prestatzen duzu otordu nagusietakoren bat (gosaria, bazkaria, merienda edo afaria)?	Bai	Ez
9. Baietz erantzun baduzu, bizikide dituzun gainerako pertsonen otordua ere prestatzen duzu?	Bai	Ez
10. Otorduak prestatzeko elikagaiak edo beharrezko gainerako gauzak erosten dituzu?	Bai	Ez
11. Pentsatzen duzu zer gosaldur/bazkaldur/merendatur/afaldur, eta pentsatutako hori prestatzeko zer behar den?	Bai	Ez
12. Konturatzen zara zer agortu den eta, beraz, falta dena berrezartzeko zer erosi behar den?	Bai	Ez
13. Konturatzen bazara, erosten duzu?	Bai	Ez
14. Edo nonbaiten idatzi edo norbaiti esaten diozu?	Bai	Ez
15. Erosketa horiek egiteko zer aurrekontu behar den pentsatzen duzu?	Bai	Ez
16. Erosketetara zoazenean, zure poltsak eramaten dituzu?	Bai	Ez
17. Bilgarri edo ontzi asko dituzten elikagaiak erosten dituzu?	Bai	Ez
Mantentze lanak		
18. Etxean bonbillaren bat fundituz gero, zuk aldatzen duzu?	Bai	Ez
19. Hustubidea hondatuz gero, zuk konpontzen duzu?	Bai	Ez
20. Edo norbaiti deitzen diozu, konpon dezan?	Bai	Ez
21. Oro har, etxean mantentze lanen bat egin behar bada (hozkailua, labea, etab. konpondu), norbaiti deitzen diozu konpon dezan?	Bai	Ez

Arropa		
22. Zuk erosten duzu zure arropa?	Bai	Ez
23. Badakizu zer neurritako arropa behar duzun, arropa mota guztietan?	Bai	Ez
24. Zerbait apurtuz gero (konponbide erraz samarra duela), konpondu egiten duzu?	Bai	Ez
25. Konpontzen ez baduzu, bota egiten duzu?	Bai	Ez
Osasuna		
26. Bizikide duzun pertsonaren bat gaixotuz gero, laguntzen diozu osasun etxera?	Bai	Ez
27. Zu gaixotzen zerenean, bakarrik joaten zara osasun etxera?	Bai	Ez
28. Aldizkako osasun zaintza behar duzunean (hortzen zaintza, etab.), bakarrik joaten zara?	Bai	Ez
29. Adi egoten zara espezialisten azterketa egitea noiz dagokizun gogoratzeko (dentista, oftalmologia, beharrezkoa baduzu, etab.)?	Bai	Ez
30. Zuk hartzen dituzu hitzorduak?	Bai	Ez
Diru-sarrereren kudeaketa		
31. Aldizkako pagarik jasotzen duzu zure ardura dutenengandik?	Bai	Ez
32. Lan egiten duzu?	Bai	Ez
33. Jabetzen zara sortzen dituzun gastu gehienez?	Bai	Ez
Beste animalia batzuk eta landareak		
34. Etxeko animaliarik baduzue, zu arduratzen zara haren zaintzaren batez?	Bai	Ez
35. Adibidez, paseatzera ateratzen duzu?	Bai	Ez
36. Janaria jartzen diozu?	Bai	Ez
37. Albaitariarengana eramaten duzu zerbait gertatzen zaionean edo aldizkako azterketa egitea dagokionean?	Bai	Ez
38. Landararik baduzue, zu arduratzen zara haien zaintzaren batez?	Bai	Ez
39. Adibidez, ureztatzen dituzu?	Bai	Ez
40. Lurra aldatzen diezu, hala behar dutenean?	Bai	Ez

Baliabideen kudeaketa		
41. Zure ur kontsumoari dagokionez (dutxa, hortzak garbitzea...), beharrezkoa denean bakarrik edukitzen duzu irekita iturria?	Bai	Ez
42. Zure elektrizitate kontsumoari dagokionez, beharrezkoa denean soilik edukitzen duzu argia piztuta?	Bai	Ez
43. Hondakinei dagokienez, zaborra ateratzen duzu?	Bai	Ez
44. Etxean hondakinak birziklatzen dituzue?	Bai	Ez
45. Eta, zehazki zuk, birziklatzeko ohitura duzu?	Bai	Ez
46. Jabetzen zara zer eragin duen horrek ingurumenean?	Bai	Ez
II. Ikastetxea		
Lantaldeak		
47. Taldean lan egiten duzuenean, ideiak sortzeko eginkizunak hartu ohi dituzu zure gain?	Bai	Ez
Kudeaketakoak?	Bai	Ez
Erabakiak hartzekoak?	Bai	Ez
Datuak biltzekoak edo ikertzekoak?	Bai	Ez
48. Taldean aritzean hartzen duzun rola lider rola da?	Bai	Ez
Sorkuntzarekin lotua?	Bai	Ez
Jarduera oso serio hartzen ez duen zirtolariarena?	Bai	Ez
Eraginkortasunarekin lotua (eskatutakoa eraginkortasunez egin nahi izaten duzu)?	Bai	Ez
49. Taldean egindako lana ikaskideekin partekatzeko garaian, modu aktiboan parte hartzen duzu?	Bai	Ez
50. Lantaldean erosoago aritzen zara gainerako taldekideak zure sexu berekoak badira?	Bai	Ez
Ikastetxeko gainerako kideekiko harremana:		
51. Ikastetxeko tutoreen bileretara joaten zara?	Bai	Ez
52. Ekitatean oinarrituriko harremanak dituzu zure gelako ikaskideekin?	Bai	Ez
53. Nolabaiteko biolentziarik dagoela ohartuz gero (ez soilik fisikoa), salatzen edo ikusarazten duzu nolabait?	Bai	Ez
Baliabideak		
54. Oro har, zu arduratzen zara eskolarako liburuak eta beharrezko materiala erosteaz?	Bai	Ez
55. Ikastetxeak antolatutako irteeraren bat baduzu, zu arduratzen zara logistikaz (eraman beharreko ogitartekoa prestatzeaz, etab.)?	Bai	Ez

III. Aisialdia

Eskola orduz kanpoko jarduerak

56. Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen baduzu, zuk egiten duzu matrikula?	Bai	Ez
57. Eta ordainketa?	Bai	Ez
58. Zu arduratzen zara jarduerarako behar duzun materiala erosteaz?	Bai	Ez

Oporrak

59. Familiarteko oporretan, nora joan erabakitzen parte hartzen duzu?	Bai	Ez
60. Eta bidaiak txartelak erosten?	Bai	Ez
61. Zeuk prestatzen duzu zure maleta?	Bai	Ez
62. Eta lagunarteko oporretan, nora joan erabakitzen parte hartzen duzu?	Bai	Ez
63. Eta bidaiak txartelak erosten?	Bai	Ez
64. Zeuk prestatzen duzu zure maleta?	Bai	Ez

Aisialdirako plana

65. Zuk proposatu ohi duzu zer plan egin?	Bai	Ez
66. Planaren arabera, arduratzen zara plana aurrera eramateko egin beharrekoak egiteaz?	Bai	Ez
67. Planaren arabera, kontuan hartzen duzu ingurumena (adibidez, kanpaldia egin behar baduzue zaborren kudeaketaz arduratuz, txosnetara bazoazte edalontzi berrerabilgarria eramanez, etab.)?	Bai	Ez




3. Proposamen alternatibo bat: ekonomia solidarioa

Sarrera

Norabait joateko autoa behar badut autoa norekin partekatu aurkitzeko Internetera jotzea. Asteburua igaro nahi dudan tokian logela alokatzen duten pertsonak aurkitzeko webgune batean sartzea. Auto bat nire bila etor dadin eskatzeko aplikazio bat irekitzea... Azken urteetan, ezin konta ahala ekimen sortu dira erabiltzaileen komunitate digitaletan antolaturik erantzuteko premia komunei. Plataforma-ekonomia deritze.

Azkenaldian halako hazkundea izan dute, non inpaktu adierazgarria izaten ari baitira gure aisia eta kontsumoa antolatzeko moduan. Hala ere, kontuan hartu beharra dago kontzeptu horrek askotariko esperientziak biltzen dituela, eta guztiak ez datozela bat ekonomia sozial eta solidarioaren balioekin. Nola identifika ditzakegu zeintzuek lan egiten duten gizarte eta ingurumen justiziarekin loturiko irizpideen arabera? Jarduera honen bidez, aurrez aurre jarriko ditugu lankidetzaren, elkarrekikotasunaren eta elkarrekiko laguntzaren aldeko apustua egiten duten ekimenak eta irabazia lortzea xede dutenak.

Helburu didaktikoak



- Sakon ezagutuko dugu ekonomia sozial eta solidarioaren balioei atxikitako plataformako ekimenen funtzionamendua.
- Aztertuko dugu nola betetzen diren ekonomia solidarioaren printzipioak ekonomia errealeko esperientzietan.
- Agerianutziko dugu zerdesberdintasun dauden ekonomia hegemonikoaren printzipioei men egiten dieten enpresen eta ekonomia solidarioari lotutakoen funtzionamenduan.
- Eztabaida egingo dugu kontsumitzaile gisa ekonomia solidarioko ekimenetara hurbiltzeko ditugun erraztasunei eta zailtasunei buruz.



Aurreikusitako denbora

Ordubeteko 2 saio.



Beharrezko baliabideak

Interneteko sarbidea eta sartzeko gailu elektronikoak; folioak eta boligrafoak.



Metodologia

Taldeko ikerlana, dilema etikoa, talde dinamika, talde gogoeta.



Jardueraren garapena

Lehen saioa

1. Talde lana: ekonomia solidarioaren aldeko apustua egiten duten ekimenei buruzko ikerketa (25')

4 talde osatuko ditugu. Talde bakoitzak taula honetako ekimen bat aukeratuko du:

	Izena	Webgunea	Jarduera
1. ekimena	Open Street Maps	www.openstreetmap.org	Mapa editagarri eta erabilera askekoak sortzea eta kontsultatzea
2. ekimena	La Pájara Ciclomensajería	https://lapajaraenbici.com	Janaria banatzeko eta mezularitzako zerbitzua
3. ekimena	Fairbnb	https://fairbnb.coop/es	Oporretako alokairu zerbitzua
4. ekimena	Som Mobilitat	www.sommobilitat.coop	Auto elektriko partekatuak alokatzea

Banaketa egin ondoren, honako alderdi haiei buruzko ikerketa egitea proposatzen dizuegu:

- Zer dela-eta sortu zen ekimena?
- Zer zerbitzu eskaintzen ditu?
- Nola ziurtatzen dute langileen zaintza?
- Zer egituraren pean hartzen dituzte erabakiak?
- Zer neurri hartzen dituzte beren jardueraren ingurumen inpaktua murrizteko?
- Zer egiten dute genero arrakala eta berdintasunik eza deuseztatzeko?

2. Lana bateratzea (15')

Ikerlana amaitutakoan, talde bakoitzak aztertu duen ekimenaren alderdi adierazgarrien berri ematea proposatuko dugu.

3. Talde gogoeta: Ekonomia Solidarioaren printzipioekiko lotura (20')

Ekonomia Sozialaren Gutunaren printzipioak berrikusiko ditugu. Talde handian gai hauei buruzko eztabaida egitea proposatuko dugu, talde bakoitzak ikertutako ekimena oinarri harturik.

- Zuen ustez, zer neurritan laguntzen du edo lan egiten du hautatutako ekimenak printzipio horietako bakoitza betetzen?
- Ekonomia kapitalistaren testuinguruan, zer printzipio iruditzen zaizue betetzen zailena?

Bigarren saioa

4. Talde lana: kapitalaren ekonomiaren proposamena (25')

Ekimen bakoitzak bere isla du, negatiboan. Talde bakoitzak bere ekimenaren bertsio kapitalistak nola diharduen ikertuko du.

- Zer kritika, salaketa, isun edo/eta epai dituzte enpresa horiek?
- Oinarrizko zer alderditan dira batzuk eta besteak elkarren bestelakoak?
- Nola urruntzen dira ekonomia kapitalistako esperientziak ekonomia solidarioaren printzipioetatik?

5. Lana bateratzea (15')

Denbora amaitutakoan, berriro elkartuko ditugu talde guztiak, talde bakoitzak egindako ikerketen azalpena entzuteko.

6. Talde gogoeta: eta zuk, zeinetara joko zenuke? (20')

Talde handian, eztabaida egingo dugu, aztergai hartuko ditugun ekimenei buruz kontsumitzaile gisa zer jarrera dugun aztertzeko. Honako galdera hauek proposatzen dizkizuegu:

- Bi bertsioetatik bat aukeratzeko dilema etikoan suertatuz gero, zein aukeratuko zenukete?
- Hautu hori egingo zenukete edozein kasu eta egoeratan?
- Zer elementuk bultzatuko zintuzkete baten alde egitera bestearen alde egin ordez? Zergatik?

Material lagungarria

- Esteka honetan, Ekonomia Sozialaren printzipioen gutuna aurkituko duzu: www.economiasolidaria.org/carta-de-principios
Era berean, gutunaren laburpen bat ageri da gida honen 3.1. atalean.
- Ekonomia solidarioaren printzipioei loturiko plataforma-ekonomiaren inpaktuan sakontzeko, honako artikulua gomendatzen dizugu: "¿Montamos una cooperativa de plataforma?". Hauxe da artikulua esteka: <https://bit.ly/2LIBqIV>
- Ikertutako ekimenen bertsio kapitalistei dagokienez, eztabaida kokatzeko erreferentzia batzuk bildu ditugu taula honetan:


Ekonomia Solidarioko ekimena	Bertsio kapitalistak
Open Street Maps	<p>Google erraldoiak bere bertsioa du mapak kontsultatzeko; hori bai, gure pribatasuna urratzen du eta publizitate pertsonalizatua bidaltzen diharduten enpresei saltzen dizkie guk oparitzen dizkiogun datuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Googlemaps: www.google.es/maps
La Pájara Ciclomensajería	<p>Janaria eta bestelako produktuak etxez etxe banatzen duten enpresak, zeinak ezartzen baitituzte azpikontratazioan, kostuak kanpora ateratzean eta lan eskubideen prekariozian oinarrituriko lan harremanak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Uber Eats: www.ubereats.com • Glovo: https://glovoapp.com • Deliveroo: https://deliveroo.es
Fairbnb	<p>Kasu honetan, bertsio kapitalista hau proposatzen dugu, argi eta garbi kontrajartzen zaiolako:</p> <ul style="list-style-type: none"> • AirBnb: www.airbnb.es
Som Mobilitat	<p>Alokairu pribatuko ekimenak, zeinak ez baitute eskaintzen partikularren arteko trukerik. Erregai fosilak erabiltzen dituzten ibilgailuak dauzkate. Sektore honetan enpresa asko daude irabazi asmoa dutenak eta beren lurraldeekiko loturarik gabeak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Europcar: www.europcar.es • Avis: www.avis.es • Hertz: www.hertz.es

Sarrera

Ekonomia solidarioak herritarren esku egongo den banku etiko baten premia du, ez soilik ziklo ekonomikoa betetzeko, baizik eta ekintza politikorako tresna delako diruarekin dugun erlazio oro. Aldiz, finantza ekimen alternatiboen aurrez aurre, botere eta eragin kalkulazina duen banku sektore bat dugu kapitalaren zerbitzura. Banku hegemoniko horrek ez du inolako eragozpenik izan bere irabaziak eragiketa espekulatiboetan, armagintzan egindako inbertsioetan edo ingurumena hondatzen duten proiektuetan oinarritzeko.

Bada garaia banku jarduna ulertzeko bi moduak aurrez aurre jartzeko. Eta, horretarako, zer hobe, banku eredu bat eta bestea telebistako eztabaida saio bat egitera gonbidatzea baino. Jarduera honetan, bakoitzaren balioak eta jarduerak agerian jarriko ditugu, elkarren aurrez aurre, rol joko batean; joko horren bidez, dirua eta finantzaketa ulertzeko bi modu horien argudioetan sakondu ahal izango dugu.

Helburu didaktikoak



- Banku etikoaren nahiz banku armatuaren funtzionamendua, balioak eta argudioak aztertuko ditugu.
- Mota bakoitzeko bankuen jardunaren oinarriak aztertuko ditugu, eta azalera aterako ditugu bakoitzaren ingurumen eta gizarte ondorioak.
- Gogoeta egingo dugu kontsumitzaile gisa banku eredu baten eta bestearen aurrean dugun paperaz.



Aurreikusitako denbora

Ordubete.



Beharrezko baliabideak

Interneteko sarbidea eta sartzeko gailu elektronikoak; rolen deskribapena (eranskinean); DIN A4 edo antzekoak; koloretako errotuladoreak eta arkatzak.



Metodologia

Talde dinamika, taldeko ikerlana, talde gogoeta.



Jardueraren garapena

1. Rolak banatzea: nork parte hartuko du eztabaidan? (10')

Rol jokia hasteko, non gertatuko den aurkeztu behar dugu. Telebistako eztabaida saio bat antzeztu behar dute ikasleek: "Banku etikoa edo banku konbentzionala: zeinen aldeko apustua egin?". Nork berari egokitzen zaion rola antzeztuko du, eta eztabaida bizia bultzatzeko eta argudio aberatsak emateko ahalegina egin beharko du. Rolak taldeko kideen artean banatuko ditugu, alde guztietan kide kopuru bera izateko moduan.

Rol hauek daude jokoan eztabaidan:

1. Kazetariak
2. Banku etikoaren ordezkariak
3. Banku konbentzionalaren ordezkariak
4. Publiko gonbidatua.

Eranskinean aurkituko duzue pertsonaia-talde bakoitzaren deskribapena eta jarreraren azalpena.

2. Taldeko ikerlana: eztabaida prestatzea (20')

Talde bakoitza eztabaida prestatzeko elkartuko da. Garrantzizkoa da eztabaidaren aurreko tarte ongi aprobetxatzea.

Publikoak eta kazetariak estu hartu nahi badituzte eztabaidan parte hartuko duten entitateak, garrantzizkoa da haiek estutasunean jar ditzakeen informazioa biltzea, galdera deserosoak egitea, beti jakin nahi izan zuten horri buruzko galdera egitea.

Bestalde, banku entitateei dagokienez, eztabaidan arrakasta izan eta galderei ongi erantzun nahi badiete, ongi prestatu beharko dituzte eztabaidan egingo dizkieten galderen erantzunak eta argudioak. Ongi ezagutu behar dute beren funtzionamendua, argudioak, kritikei aurre egiteko eta erasora jotzeko moduak. Era berean, aukera dute eztabaidan "aurkari" duten banku entitatea estutasunean jartzeko moduko erantzunak prestatzeko.

Eztabaida prestatzeko, Interneten ikerketa egin dezakete, baita balizko galderen eta adostutako argudioen zerrenda idatzi ere.

3. Dalde dinamika: iritsi da eztabaida erabakigarria (30')

Eztabaida hasteko, telebistako saioa antzezteko modu egokian antolatu beharko dugu gela/aretoa. Talde bakoitzak bere tokia hartutakoan, eztabaidari ekingo diogu.

Kasu honetan, eztabaida gidatuko duen pertsonaren rola jokatu dugu guk. Horrek esan nahi du hitza hartzeko txandak ematea, parte-hartzea bultzatzea, gairen bat ahultzen hasitakoan publikoak eta kazetariak galderak edo iruzkinak egin ditzaten bilatzea, dagokien taldeei erantzun dezaten eskatzea, talde bakar batek hitz egin dezan saihestea...

Talde guztiak aurkeztu ondoren, eztabaidari hasiera emango diogu, telebista saioaren izenburuko galdera eginez: "Banku etikoa edo banku konbentzionala: zeinen aldeko apustua egin?"


4. Talde gogoeta (10')

Rol jokoa amaitu ondoren, talde handian elkartuko gara, berriro, esperientzia nola bizi izan dugun azaltzeko eta mahai gainean jarri diren argudioei buruzko iritzia emateko. Amaierako tarte hau suspertzeko, honako galdera hauek erabil daitezke:

- Zer izan da banku konbentzionala izatearen alderdi zailena? Eta banku etikoa izatearena?
- Zenbateraino jabetzen ginen banku eredu bien funtzionamenduaz? Zer elementu berri agertu dira eztabaidan?
- Non dugu gure dirua gordeta? Zergatik egin dugu aukera horren aldeko apustua?

Material lagungarria

Banku Armatua industria militarra finantzatzen duten banku erakundeak jendaurrean salatzen sortutako ekimen bat da. Era berean, haren asmoa da politika etikoak eta sozialki arduratsuak eskatzea eta gai horri buruzko sentsibilizazioa lantzea. Ekimen horren ikerketen emaitzei eta kanpainei buruzko informazioa lortu nahi izanez gero, ekimenaren webgunea bisitatzea gomendatzen dizuegu: www.bancaarmada.org



Aldaera posibleak

Dinamizazio rola: taldearen ezaugarrien arabera, dinamizatzaile/aurkezlearen zeregina taldeko kide batek har dezake, irakasleak edo bideratzaileak hartu ordez.

Eranskina (4. Jarduera).

Eztabaidan parte hartuko duten rolen deskribapena

Kazetariak

Zuek egingo dituzue eztabaidan planteatzen den galderari ("Banku etikoa edo banku konbentzionala: zeinen aldeko apustua egin?") erantzuten lagunduko diguten galderak. Horretarako, bi banku ereduak ikertu beharko dituzue, eta galderak ongi prestatu. Zer jakin behar dugu erabakia hartzeko? Ereduren batek informazioen bat ezkutatu nahi du? Zer galderak har ditzakete estu bi ereduaren ordezkariak beren jardunaren defentsan?

Aurrera! Zuen esku dago eztabaidagaiari buruzko iritzia finkatzeko behar dugun informazio guztia eskura dezagun.

Banku etikoaren ordezkariak

A priori, pentsa liteke ez publikoa ez hedabideak ez direla gure taldearen kontra arituko. Hala ere, baduzue eragozpen bat: jende gehienak ezer gutxi daki banku eredu honen balioei eta ekimenei buruz. Seguru asko, jende asko ez da fidatuko sekula entzun ez dituzten bankuen izenez. Garrantzikoa da zuen diskurtsoa ongi prestatzea, modu pedagogikoan aritzea, eta... ongi prestatzea banku konbentzionalaren balizko erasoei aurre egiteko!

Banku konbentzionalaren ordezkariak

Seguru asko, talde honentzat izango dira kritika edo galdera konprometitu gehienak. Ildo horretatik, garrantzikoa da aurrea hartzea zuen gain botako dituzten kritika posibleei, zuen jarduna defendatzeko argudioak prestatzea eta banku etikoaren ereduak ez zilegitzeko arrazoiak lantzea. Nola erabakitzen da non egingo dituzuen inbertsioak? Zer gizarte eta ingurumen politika aplikatzen dituzue? Zer baliotan oinarritzen da zuen jarduera? Seguru asko, galdera horiek agertuko dira eztabaidan zehar. Zuen esku dago galderari erantzutea edo haietatik ihes egitea, haiek saihestea.

Publiko gonbidatua

"Jende arruntarena" egin behar dugu. Denborak aurrera egin ahala, mesfidantza handia sortu da banku sistemarekiko. Aurrez aurre izango ditugu, eta, beraz, aukera dugu azken urteetan bizitako guztiaz galdetzeko eta haien jarduna kritikatzeko. Zer jakin behar dugu banku batez fida gaitetzen? Zenbateraino fida gaitzke banku sektoreaz, oro har? Nola berreskura dezakete gure konfiantza? Eta, bestalde, zer motatako zerbitzuak eskaintzen dituzte eredu batek eta besteak? Erraztasun berak ematen al dituzte?




5. Lanak, enpleguak eta enpresak

Sarrera

Gizarte modernoa ikuspegi dualista baten bidez egituratzen da, eta ikuspegi horretan errealitatea elkarren aurkakoak diren bi kontzeptu bloketan zatituta dago. Gizartea ongi bereizitako bi tiraderatan banatuko bagenu bezala: batean sartzen dena bestean sartzeko aukerarik gabe. Horrez gainera, tiradera horiek bertikalki ipinita daude, hau da, hierarkikoki; hortaz, goiko tiraderan sartutakoa da sozialki balioesten dena. Horri erantsi behar zaio iruditeria kolektiboan (askotan inkontzienteki) loturak ezartzen ditugula tiradera bakoitzean dauden kontzeptuen artean, eta konektatu egiten ditugula. Feminismoek zalantzan jartzen dute gizartearen ikuspegi dualista (eta hierarkizatu) hori. Ikuspegi dualista hori eta horren gaineko eztabaida landuko ditugu, hain zuzen, jarduera honetan.

Helburu didaktikoak



- Gizartearen egungo ikuspegi dualista eta hierarkizatuaren gaineko gogoeta kritikoa egingo dugu.
- Ikuspegi horrek oro har gizartean eta zehazki ekonomian dituen ondorioei buruz gogoeta egingo dugu.
- Ikuspegi dualista eta hierarkizatu horretatik haratago doazen proposamenak pentsatuko ditugu.



Aurreikusitako denbora

Ordubeteko 2 saio.



Beharrezko baliabideak

Kontzeptuen zerrenda (eranskinean); arbela, proiektagailua edo antzekoa; papelografoak; folioak, DIN A3 tamainakoak edo antzekoak; koloretako errotuladoreak eta arkatzak.



Metodologia

Talde dinamika, talde gogoeta.



Lehen saioa

1. Kontzeptuen zerrenda osatzea (10')

Saioa hasteko, labur-labur azalduko dugu gure gizartearen egitura dual eta hierarkikoa. Horretarako, **Sarreran** izango duzue informazio pixka bat, eta, gehiago sakondu nahi izanez gero, material lagungarriaren atalean gaiari buruzko artikulua bat daukazue proposatuta.

Jarraian, landuko ditugun kontzeptu guztiak aurkeztuko ditugu, formatu bisualen baten bidez (arbela, proiektagailua...), eta, aldi berean, izendatu egingo ditugu, barneratzen joan ahal izateko. Eranskinean daukazue proposatutako kontzeptuak.

2. Taldeko lana: kontzeptuak hierarkizatzea eta dualtasunak ezartzea (15')

Bi taldetan banatuko ditugu ikasleak, eta 10 kontzeptuko zerrenda bat emango diogu talde bakoitzari.

Taldeek bi kategoria handitan bereizi beharko dituzte kontzeptu horiek: batetik, sozialki balioesten diren kontzeptuak, eta bestetik, balioesten ez direnak. Behin bereizita, bi kontzeptu multzoen artean sortzen diren dualtasunak aurkitu beharko dituzte, hau da, lehenengo multzoko kontzeptu bakoitza bigarren multzoko kontzeptu batekin erlazionatu beharko dute. Kontzeptu guztien arteko loturak ezarri ostean, kontzeptuen arteko dualtasuna eta hierarkia argi eta garbi ikusteko moduan ipiniko dituzte.

3. Lana bateratzea (20')

Talde bakoitzak kontzeptuak nola sailkatu eta erlazionatu dituen azalduko du. Une honetan, interesgarria da multzo bakoitzeko kontzeptuen artean ezarri ohi diren loturak ere aztertzea.

4. Talde gogoeta: lanaren nozioa birkontzeptualizatzea (15')

Taldeek osatutako multzo bakoitzak (edo tiradera bakoitzak, **Sarrerako** konparazioa erabiliz) lanaren ezaugarri desberdinak bilduko ditu. Multzoetako batean, lan produktiboari lotutako ezaugarriak egongo dira, eta bestean, aldiz, lan erreproduktiboari lotutakoak. Hortaz, azpimarratuta geratuko da lan produktiboa/lan erreproduktiboa dikotomia, eta, era berean, agerian geratuko dira multzo bakoitzeko kontzeptu edo ezaugarriekin egiten diren loturak.

Hori dela eta, lehen saioa amaitzeko, eztabaida egingo dugu iruditeria kolektiboan multzo bakoitzeko kontzeptuen artean ezarri ohi diren loturen gainean, eta eztabaida bideratu egingo dugu, landu nahi dugun gaia jorratzeko: lana/enplegua.

Hona hemen eztabaida bideratzeko lagungarriak izan daitezkeen zenbait galdera:

- Hasteko, identifika ditzakezue bi multzoen ezaugarri komun batzuk?
- Zuen ustez, zer multzotan egongo lirateke lan ikusezinenak? Zer multzotan egongo lirateke hobekien ordaindutako enpleguak eta lan baldintza onenekoak? Zer multzotan egongo lirateke lan prekarioenak, edo baita doakoak ere?
- Badago loturarik multzo bakoitzeko kontzeptuen artean? Nolako loturak dira? Zer pentsarazten dizue horrek?

Bigarren saioa

5. Taldeko lana: dualtasunetik haratago (30')

Saio honetan ikasleek binaka lan egingo dugu. Kontzeptu bakoitza pertsona bati egokituko diogu, eta pertsona horrek bikotea osatu beharko du bere kontzeptuaren aurkakoa duen pertsonarekin.

Bikote bakoitzak lan hau egingo du: hasteko, dualtasun horrek beren bizitzan nola eragin dien hausnartuko dute. Ondoren, dualtasun hori gainditzeko modua irudikatuko dute. Baliteke hori zaila izatea; horrexegatik azpimarratu behar da sormenaren garrantzia: eman diezazkiotela hegoak irudimenari! Bai proposamenaren edukian, bai proposamena taldearen aurrean aurkezteko moduan ere: marrazki bat, collage bat, eskema bat... Ez dago mugarik ez forman, ez mamian!

Lan hori amaitutakoan, eta soilik aurretiko jarrera ona dutela iruditzen bazaizue, landutako ideiak lan/enplegu zehatz batera ekar ditzakezue, ariketa amaitzeko. Berriz bikoteka lan egin beharko dute, eta galdera hau botako diezue: aurreko puntuan sortutako ideietatik abiatuta, nola hartuko zenituzkete kontuan ideia horiek, ekimen ekonomiko bat egituratzean/antolatzean?

6. Lana bateratzea (10')

Bikote bakoitzak gainerakoei aurkeztuko dizkie egin dituen hausnarketak, baita landutako kontzeptu zehatzen bidez gizartearen ikuspegi dualista gainditzeko pentsatu dituen proposamenak ere.

Egindako lana ikasgelan bisualki islatuta gera dadin, bikote guztien proposamenak elkartu eta horma irudi bat osatzea proposatzen dizuegu.

7. Talde gogoeta: dualismoak gizarte modernoan (20')

Saioa eta jarduera amaitzeko, ikasgelan eztabaida irekia egitea proposatzen dizuegu, landutako gai guztiak finkatzeko. Hona hemen eztabaida bideratzeko lagungarriak izan dakizkizuekeen galdera batzuk:

- Zer iritzi duzue landutako kontzeptuen balorazio sozialaren eskalari buruz? Zer pentsarazten dizue horrek?

- Zer ondorio izan ditzake ikuspegi dualista eta hierarkizatu horrek gizartean? Eta ekonomiaren arloan?
- Ikuspegi dualista horrekin bat etorrira, zer lan mota balioesten dira gure gizartean? Eman ditzakezue adibide zehatzak? Zer pentsarazten eta sentiarazten dizue horrek?
- Zuen ustez, zer toki dagokio bizitzari balorazio sozial horretan?
- Ikuspegi dualista hori gainditzea gizartearentzat aberasgarria izan daitekeela uste duzue? Zertan izan daiteke aberasgarria?
- Bururatzen zaizue ikuspegia dualismotik haratago zabaltzeko beste modurik? Zein?

Material lagungarria


Egungo gizartea egituratzeko erabiltzen den ikuspegi dualistaren gainean sakontzeko artikulua: "Ecofeminismo, una propuesta para repensar el presente y construir el futuro", Marta Pascual Rodríguez eta Yayo Herrero López. Artikulurako esteka: http://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/Boletin_ECOS/10/ecofeminismo_propuesta_repensar_presente.pdf

Lantzeko proposatutako kontzeptuen dualismo hierarkizatuak:

Balioetsiak	Eremu publikoa (etxetik kanpo)	Lehiakortasuna	Arrazoimena
Ez-balioetsiak	Eremu pribatua (etxea)	(inter)Kooperazioa	Emozioa

Balioetsiak	Objektibotasuna	Iparra	Lan produktiboa	Maskulinoa
Ez-balioetsiak	Subjektibotasuna	Hegoa	Lan erreproduktiboa	Femeninoa

Balioetsiak	Banakotasuna	Adimena	Ezagutza zientifikoa
Ez-balioetsiak	Komunitatea	Gorputza	Herriaren jakintza



Aldaera posibleak

Taldeak 20 kide baino gutxiago baditu (20 dira landu beharreko kontzeptuak), komeni da kontzeptu batzuk kentzea eta horien kopurua taldekideen kopurura egokitzea.

Eranskina (5.1. Jarduera).


Kontzeptu dualisten zerrenda

1. Taldean lantzeko kontzeptuak:	2. Taldean lantzeko kontzeptuak:
Eremu publikoa (etxetik kanpo)	Lan produktiboa
Eremu pribatua (etxea)	Lan erreproduktiboa
Lehiakortasuna	Maskulinoa
(inter)Kooperazioa	Femeninoa
Arrazoimena	Banakotasuna
Emozioa	Komunitatea
Objektibotasuna	Adimena
Subjektibotasuna	Gorputza
Iparra	Ezagutza zientifikoa
Hegoa	Herriaren jakintza

Sarrera

Aipatzen ez dena ez da existitzen. Horregatik, garrantzitsua da sozialki nahiz ingurumenari begira jasangarria izan nahi duen ekoizpenaren alde apustu egiten duten enpresa eta ekimenen lana ezagutzera ematea. Jarduera honen bidez, onura soziala lortu nahi duen enpresa eredu berri bat diseinatzeko erronkari helduko diogu. Zer erronka eta aukera aurkituko ditugu bidean?

Helburu didaktikoak



- Ekoizpen jasangarriari lotutako ekimen edo enpresek ase litzaketen erronka edo/eta beharrak identifikatuko ditugu.
- Pertsonak enpresaren erdigunean jartzen laguntzen duten printzipioak eta balioak aztertuko ditugu.
- Gogoeta kritikoa egingo dugu helburu nagusizat ahalik eta irabazi gehien lortzea duen ekonomia kapitalistaren testuinguruan era honetako ekimenak sustatzeak berekin dakartzan ondorioei buruz.



Aurreikusitako denbora

ordubeteko 2 saio.



Beharrezko baliabideak

Interneterako konexioa eta Interneten sartzeko gailu elektronikoak; folioak, DIN A4 tamainakoak edo antzekoak; koloretako errotuladoreak eta arkatzak.



Metodologia

Taldeko diagnostikoa, talde gogoeta.



Jardueraren garapena

Ekoizpen jasagarria xedetzat duten ekimen edo enpresak diseinatzeko, urrats hauek egitea proposatzen dugu. Bakarka edo taldeka egin daitezke.

Lehen saioa

1. Inguruan izan daitezkeen beharrak ikertzea (30')

Ekoizpen jasagarriaren aldeko apustua egiten duen enpresa edo ekimen orok interes soziala jarri behar du erdigunean. Hori dela eta, zuen ingurune hurbilekoenean zer premia dauden identifikatzea izango da lehen urratsa. Horretarako, auzoan/herrian bizi direnei galde diezaiekete ikasleek, edo Interneten bilaketak egin ditzakete, inguruneke arazo sozialak eta ingurumen arazoak ezagutzeko.

Adibidez: badira konpainia/zaintzak behar dituzten adineko pertsonak?, erraz lor daitezke bertan ekoiztako nekazaritzako elikagai ekologikoak?, gazteek eskura dute aisialdi ugaria eta osasungarria?, etab.

2. Antzemandako beharra(k) asetzeko ekimen bat diseinatzea (30')

Horretarako, beren ekimenak alderdi hauei nola erantzungo lieken pentsatuko dute:

- Zer printzipio edo balio izango lituzke enpresak edo ekimenak?
- Zer neurri hartuko lituzke, langileak eta interes soziala nahiz ingurumenekoa jardueraren erdigunean kokatzeko?

Bigarren saioa

3. Diseinua aberastea (20')

Interes soziala eta ingurumenekoa beren jardunaren erdigunean kokatzen duten ekimeneke eta enpresek lehenesten dituzten alderdi nahiz balioen zerrendarekin erkatuko dute egindako diseinua (ikus zerrenda material lagungarriari buruzko atalean).

Zerrendari erreparatuta, nola osa zenezakete zuen ekimen/enpresaren diseinua?

4. Ingurunea arakatzea (40')

Agian jada bada diseinatu duten enpresa edo ekimenaren antzekorik. Ikertu egingo dute ekoizpen jasagarria xedetzat duten zer ekimen edo enpresa ari diren dagoeneko lanean beraiek antzemandako beharrari erantzuteko.

Ikerketa egin ostean, galdera hauek egingo dizkiegu:

- Zer da aurkitu duzuen antzekoena?
- Zer zailtasun dituzte eguneroko jardunean, horrelako ekimenak sustatzeko batera mesedegarria ez den testuinguru kapitalista honetan?
- Zer desberdintasun ditu zuek ariketan diseinatutako ekimen edo enpresarekiko?

Material lagungarria


Interes soziala eta ingurumenekoa beren jardunaren erdigunean kokatzen duten ekimenez eta enpresek lehenesten dituzten alderdi nahiz balioen zerrenda:

- Onura soziala, bizi kalitatea eta pertsonen garapena helburutzat dituen enpresa ikuspegia.
- Ondasun eta zerbitzu onuragarrien ekoizpenari lotutako jarduera ekonomikoa, alde batera uzten dituen pertsonentzat, gizarterako edo ingurumenerako kaltegarriak direnak.
- Baldintza duineko enpleguak sortzeko konpromisoa.
- Autonomiaren, partaidetzaren, erantzunkidetasunaren eta jarduera kooperatiboaren sustapena kudeaketan.
- Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko politika eta neurrien garapena.
- Soldaten eskala justu eta proportzionalen ezarpena.
- Ingurumen jasangarritasunaren sustapena.
- Irabazi asmorik gabeko enpresa jarduerak, non irabaziak ez diren banatzen akziodunen artean, baizik eta berriz inbertitzen diren, lanpostu berriak sortzeko, egiturak hobetzeko eta beste proiektu sozial batzuk babesteko.
- Lan merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen gizarteratze eta laneratzearen sustapena.

Sarrera

Eragin kapitalistaren mende dagoen testuinguru batean, nekez eutsiko diogu eraso neoliberalari, esperientzia desberdinen artean laguntza sareak ehundu ezean. Banakotasunari eta jardunbide baztertzailerei aurre egiteko, elkartzeko modua bilatu behar dugu, indartzekoa, sinergiak eraikitzekoa. Jarduera honen bidez, nork bere aldetik ibiltzeari uzteko eta alternatiba integralak eskaintzeko erronkari helduko diogu.

Helburu didaktikoak



- Ekonomia solidarioaren eta kontsumo eraldatzailearen alde egiten duten ekimenen arteko interkooperazio aukerak identifikatuko ditugu.
- Ekonomia sozial eta solidarioko ekimenen artean sareak eraikitzeak zer eragin duen aztertuko dugu.
- Gogoeta kritikoa egingo dugu produktu eta zerbitzuen salerosketatik haratago ekimen horien artean izan daitezkeen interkooperazio aukerei buruz.



Aurrikusitako denbora

Ordubete.



Beharrezko baliabideak

Bolalumak; papelografoak; zinta itsasgarria; folioak, DIN A4 tamainakoak edo antzekoak; koloretako errotuladoreak eta arkatzak; fitxak (eranskinean).



Metodologia

Talde dinamika, talde gogoeta.



Jardueraren garapena

1. Nola aurkeztuko dugu gure ekimena? (10')

Abiapuntutzat hartuko ditugu 5.2. "Enpresa jasangarrien adibideak ezagutzea eta irudikatzea" jardueran ateratako esperientziak. Aurreko ariketetako talde berberak osatuta, jardueran diseinatutako esperientzia aurkezteko fitxa bat (eranskinean daukazue) beteko dugu. Informazio hau emango dugu:

- Erakundearen izena.
- Jarduera sektorea.
- Eskaintzen dituen zerbitzuak/produktuak.
- Zer baliotan oinarrituta lan egiten duen.
- Zerk desberdintzen gaituen merkatu kapitalistan aurki dezakegunetik.

2. Taldeko lana: begirada bat esperientzia katalogoari (20')

Behin beteta, talde bakoitzak ondokoari emango dio fitxa, ordulariaren orratzen noranzkoari jarraituta.

Jasotako fitxarekin, talde bakoitzak gogoeta egin, eta galdera honi erantzungo dio, idatziz: zertarako izan dakiguke baliagarria eman berri diguten fitxak eskaintzen dizkigun ondasuna/zerbitzuak jaso/kontratatzeari?

5 minutu igarotzean, talde bakoitzak hurrengoari emango dio esku artean duen fitxa, eta beste bat jasoko du. Berriz erantzun beharko dio jaso berri duen fitxako ekimenaren baliagarritasunari buruzko galderari. Urrats hori behin eta berriz egingo dugu, talde guztiek esperientzia guztiak aztertu arte.

3. Sarea eraikitzea (20')

Papelografo batean itsatsiko ditugu fitxa guztietako esperientziak (guztien artean tarte handi samarra utziz ipiniko ditugu).

Errotuladore batekin, talde bakoitzak beste esperientzia batzuekin lotuko du berea, interes eta aliantza posibleak identifikatu baditu haien artean. Lotura bakoitzaren gainean labur azalduko dute zergatik iritzi dioten baliagarria harreman hori ezartzeari.

Talde guztiek ariketa hori egin ostean, esperientzia sarea nola geratu den ikusiko dugu.


4. Talde gogoeta: interkooperazio sarea sendotzea (10')

Hobeto aztertuko dugu eraiki dugun sarea. Horretarako, guztion artean gogoetatuko dugu, galdera gidari hauei erantzunez:

- Zer elementuk erraz diezagukete gainerakoen hornitzaile/kontsumitzaile izatea?
- Zergatik da interesgarria kapitalismoa eraldatu nahi duten esperientzia guztien artean loturak ezartzea?
- Gure artean kontsumitzeaz gain, nola lagundu diezaiokegu elkarri?

Material lagungarria

Merkatusozialenezarpenari, ezaugarriei eta funtzionamenduari buruz gehiago jakiteko, El Salto egunkarian argitaratutako artikulu hau gomendatzen dizuegu: "Mercados sociales, la unión hace la fuerza". Artikulurako esteka: <https://bit.ly/348N4gv>



Aldaera posibleak

Beste eragile batzuk: agertu ez diren arren hausnartzeko modukotzat jotzen diren beste eragile batzuk sar daitezke: administrazio publikoak, finantza erakundeak, kontsumitzaile taldeak, gizarte erakundeak... Hartara, eragile horiek merkatu sozialaren eraketan izan lezaketen eginkizunaren gainean gogoeta egin daiteke.

Eranskina (6.1. Jarduera):


Esperientzia aurkezteko fitxa

Erakundearen izena
Jarduera sektorea
Zer zerbitzu/ produktu eskaintzen ditu?
Zer baliotan oinarrituta lan egiten du?
Zerk desberdintzen gaitu merkatu kapitalistan aurki dezakegunetik?

Sarrera

Gure egunerokoan erabiltzen dugun produktueta bakoitza kontsumitzean, ingurumenean eta beste pertsona batzuegan eragina duten erabaki politikoak hartzen ditugu. Jarduera honetan, ondorio horien gaineko gogoeta egingo dugu, gure eguneroko bizitzako hainbat produktuk uzten duten azterna aztertuz.

Helburu didaktikoak



- Kontzientzia kritikoa sustatuko dugu, normalki kontsumitzen dugun produktu baten azterna globala aztertuz.
- Produktu bat ala beste kontsumitzeak dakartzan ondorio desberdinak aztertuko ditugu.
- Produktuen etiketan gardentasunak duen garrantzia hausnartuko dugu.



Aurreikusitako denbora

Ordubeteko 2 saio.



Beharrezko baliabideak

Internetarako konexioa eta Interneten sartzeko gailu elektronikoak; folioak, DIN A3 tamainakoak edo antzekoak, etiketa diseinatzeko; koloretako errotuladoreak eta arkatzak; proiektagailua; bozgorailuak.



Metodologia

Rol jokoa, talde dinamika, taldeko ikerlana, bideoa ikustea, talde gogoeta, diseinuaren sorrera.



Jardueraren garapena

Lehen saioa

1. Taldeko lana: produktuak aukeratzea (10')

Ikasleek bikoteka edo taldean lan egingo dute.

Talde bakoitzak egunerokoan erabili ohi dituzten bi produktu aukeratu dituzte. Produktuetako bat bertan ekoitzia eta bestea inportatua izatea gomendatzen dugu.

2. Taldeko lana: produktuen aztarna kalkulatzeko (50')

Talde bakoitzak aukeratutako produktuek maila globalean uzten duten aztarnari buruzko ikerketa egingo du. Horretarako, produktuaren bizi ziklo osoa aztertuko dute: jatorria, merkaturatzea, sortutako hondakin posibleak eta lan eskubideetan, genero berdintasunean eta beste alderdi batzuetan izandako eragina.

Hona hemen nahitaez aztertu beharrekotzat jotzen ditugun alderdietako batzuk:

- Zama ekologikoa. Horretarako, produktuaren zama ekologikoa aztertuko dute, hau da, produktu bat ekoizteko zenbat material erabili den bere bizi ziklo osoan: lehengaien erauzketan, fabrikazioan, ontziratzean, garraioan eta sortutako hondakinen tratamenduan.
- Lehengaiaren jatorria. Bizi ziklo osoan erabilitako material kantitatea aztertzeaz gain, interesgarria da, halaber, material horien jatorria aztertzea.
- Lan baldintzak. Produktua ekoizten duen enpresako langileen lan eskubideak aztertuko dituzte.
- Genero berdintasuna. Enpresa edo lan sektore horietan emakumeek zer egoera duten aztertuko dute (lan baldintzak, erantzukizun postuak...).
- Produktuaren merkaturatzea. Produktua nagusiki zer establezimendu motatan merkaturatzen den aztertuko dute.

Beharrezkoa izanez gero, ikasgelarako aurreikusitako ordutegitik kanpo jarraitu ahal izango dute ikerketarekin.

Bigarren saioa

3. Taldeko lana: produktu baten etiketaren diseinua sortzea (30')

Aurretik bildutako informazioarekin, talde bakoitzak etiketa garden bat diseinatuko du aztertu duen produktu bakoitzarentzat.

Etiketan, aurretik bildutako informazioak agertu beharko du, labur-labur. Diseinu hori egiteko hainbat tresna erabili ahal izango dituzte: marrazkiak, eskemak, ordenagailuko programekin egindako diseinuak, etab. Anima itzazue sormena erabiltzera! Eman dezatela nahi duten informazioa, eta saia daitezela ahalik eta diseinu garden eta originalena egiten! Edozein etiketa formatu erabil dezakete, baldin eta aztertutako informazioa jasota badago, modu batean ala bestean. Gardentasuna eta irudimena dira kontuan hartu beharreko kontsigna nagusiak.

4. Lana bateratzea (10'-15')

Talde bakoitzak bere produktuaren etiketa aurkeztuko die gainerako taldeei, eta, aldi berean, aztertutako produktuaren azterna globalari buruzko ikerketan bildutako informazioa azalduko die.

Urrats bera egingo dute aztertu dituzten produktu guztiekin.

5. Bideoa ikustea eta talde gogoeta (15'-20')


Amaitzeko, *Dos tomates y dos destinos* film laburra ikustea proposatzen dizuegu, adibide ona baita teoriar berdinak izanda ere errealitatean oso desberdinak diren bi produkturen aztarnaren zati bat erkatzeko.

Ondoren, taldean eztabaida dezakezue. Hona hemen talde gogoetarako lagungarriak izan dakizkizuekeen galdera batzuk:

- Bazenekiten zer eragin duzuen gizartean eta ingurumenean zuen kontsumitzeko moduarekin?
- Zuen kontsumo ohituretako batzuk alda ditzakezuela uste duzue? Bideoak bi kontsumo eredu erakutsi dizkigu bi tomate desberdinen bidez. Zer tomate kontsumitzen duzue normalean? Maurizio edo K47? Zer pentsatzen duzue orain zuen kontsumoari buruz?

Material lagungarria

“Dos tomates y dos destinos” bideorako esteka
<https://justiciaalimentaria.org/node/477>



Aldaera posibleak

Egoera sektoreka aztertzea

Jardueraren zatiren batean interesgarria izan daiteke taldeak sektoreka elkartzea, aztertzen ari diren produktuen arabera. Hona hemen hainbat sektore: automobilgintza, elikadura, hezkuntza, kultura, osasuna...

Sektore bakoitzean sektorearen aztarna globalaren horma irudi bat egin dezakete, aztertutako produktuetako bakoitza kontuan hartuta. Hartara, sektore bakoitzaren irudi orokorragoa izango dute.

Ikerketa zabaltzea

Denbora izanez gero, ikerketa zabalagoa egin dezakezue. Adibidez, produktua ekoizten duten enpresetan ez ezik, hura banatu eta merkaturatzen duten enpresetan ere azter ditzakezue giza eskubideen eta genero berdintasunaren alderdiak.




**7. Diruaz eta
merkatuaz
haratago:
komunitatearen
zerbitzura dauden
ekonomiak**

Sarrera

Dagoeneko ikusi dugu ekonomia kapitalistarentzat eremu produktiboa dela ekonomian kontuan hartu beharreko bakarra. Dena den, ekonomia feministatik aldarrikatzen den moduan, funtsezkoa da eremu erreproduktiboan egiten diren zaintza lanak agerian jartzea. Bi eremu horiei eremu komunitarioa erantsi behar zaie, zeina baita funtsezkoa bizitzaren jasangarritasuna bermatuta egon dadin eta ekonomiak funtziona dezan. Jarduera honetan, eremu komunitarioa funtzionamendurako giltzarritzat duten hainbat ekimen ezagutuko ditugu.

Helburu didaktikoak



- Eremu komunitarioak ekonomian duen garrantzia agerian jarriko dugu.
- Ekonomiaren funtsezko alderdiak baloratuko ditugu: kolektibotasuna, tokikotasuna, ondasun komunak, zerbitzuen beste balorizazio/monetarizazio modu batzuen erabilera edo sareen sendotzea.
- Aurreko helburuan aipatutako alderdiak sustatzen dituzten ekimenak identifikatuko ditugu, bai tokikoak, bai nazioakoak, baita nazioartekoak ere.



Aurreikusitako denbora

Ordubete.



Beharrezko baliabideak

Internerako konexioa eta Interneten sartzeko gailu elektronikoak; 2 ekimen fitxa (edo aztertuko dituzten ekimen kopurua adina) talde bakoitzeko (eranskinean).



Metodologia

Talde dinamika, esperientzien mapaketa.



Jardueraren garapena

1. "Alternatibak eta politika publikoak elikatzen" ekimen bilatzailearen aurkezpena (10')

"Alternatibak eta politika publikoak elikatzen" proiektua aurkeztuko dugu, web bilatzailearen formatua duen mapa bat. Webgunean bertan azaltzen dutenez, proiektua talde gogoeta eta ikaskuntzako prozesu baten emaitza da, eta elikadura burujabetza hartzen du gure lurraldeak eraldatzeko ikuspegi politikotzat. Elikadura eskubide gisa eta aldaketarako motor gisa hartzen dute, eta, ideia horretatik abiatuta, gizarte eta ingurumen sistema justuagoa, ekitatiboagoa eta jasangarriagoa sustatu nahi dute, bizitza erdigunean jarriko duena. Era berean, lurraldeak eta bertakoa eremu estrategikotzat dituzte, eskubide hori bermatuko duten alternatibak eraikitzeke eremu estrategikotzat, alegia.

Mapan jasota dauden ekimenak non gauzatzen diren ikus daiteke, eta hiru irizpideren arabera sailkatuta daude:

- Zer eremutan ari diren lanean (*Burujabetza*)
- Zer egiten ari diren eta nola (*Tresnak*)
- Nork bultzatzen duen (*Nortzuk*)

2. Taldeko lana: bilatzailean nabigatzea (20')

Lau taldetan banatuko ditugu ikasleak. Talde bakoitzak bilatzailean dagoen Burujabetza ataleko arlo bakoitzeko azpi-eremu batzuk aztertuko ditu.

Hala bada, azterketa hau egitea proposatzen dugu:

1. taldea

- Emakumeen autonomia eta eskubideak (Ahalduntzea eta antolakuntza)
- Ondasun naturalak (Ura)
- Energia (Autonomia energetikoa)
- Komuna denaren antolamendua eta jakintza askea (Jakintza eta informazioa)
- Bertako elikadura sistemak (Elikadura kolektiboa)

2. taldea

- Emakumeen autonomia eta eskubideak (Sareak eta aliantzak)
- Ondasun naturalak (Itsasoa)
- Energia (Alternatiba energetikoak)
- Komuna denaren antolamendua eta jakintza askea (Gune kolektiboak)
- Bertako elikadura sistemak (Merkaturatze zirkuitu laburrak)

<p>3. taldea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen autonomia eta eskubideak (Balorazioa) • Ondasun naturalak (Haziak) • Energia (Hondakinen gestioa) • Komuna denaren antolamendua eta jakintza askea (Sareak eta aliantzak) • Bertako elikadura sistemak (Ekoizpen agroekologikoa) 	<p>4. taldea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen autonomia eta eskubideak (Bisibilizazioa) • Ondasun naturalak (Lurra) • Energia (Eredu publikoak) • Energia (Murrizketa) • Bertako elikadura sistemak (Bertako eraldaketa)
---	---

Webgunean nabigatuko dute, webgunea bera eta bertan ageri diren ekimenak ezagutzeko; era berean, interesgarria da aztertzea zertan eta nola lan egiten duen ekimen bakoitzak (*Tresnak*), eta nork bultzatzen duen (*Nortzuk*).

Honako tresna hauek ageri dira bilatzailean: Sareak eratzen; Ezagutzen eta hausnartzen; Martxan jartzen; Plangintza egiten; Arazten. Eta bultzatzaileen artean, hauek daude: Mugimendu baserritarra – Erakunde baserritarra; Tokiko instituzioa; Herri mugimendua – Erakunde soziala; Emakumeen kolektiboa edo kolektibo feminista; Akademia; Sarea. ‘Sareak eratzen’ tresnari eta ‘Sarea’ bultzatzaileari arreta berezia eskain diezaioten gomendatzen dugu.

3. Taldeko lana: ekimenak hautatzea (10’)

Talde bakoitzak bilatzailean dagokion sektorean nabigatuko du; bertan jasota dauden ekimenak ezagutuko ditu, eta gutxienez pare bat aukeratuko ditu, neurri handi batean baldintza hauek betetzen dituztenak:

- Taldea, komunitatea ezinbestekoa da ekimenak funtziona dezan.
- Ez du dirurik erabiltzen, edo ‘legezkoa’ ez den dirua erabiltzen du gutxienez jardueren zati batean.
- Bere jardunean ezinbestekoa da sareak sendotzea.
- Ondasun komunak zaintzen ditu.

Gutxienez bi ekimen hautatu dituztenean, fitxa batean jasoko dute horietako bakoitzaren oinarrizko informazioa. Eranskinean duzue bete beharreko fitxaren eredu bat.

4. Bateratze lana, entzute aktiboaren bidez (20')


Taldeek aukeratu dituzten ekimenetako bakoitza ezagutzera emateko, entzute aktiboa sustatzen duen Metodologia bat erabiltzea proposatzen dugu.

Talde bakoitza beste batekin elkartuko da (1.a 3.arekin eta 2.a 4.arekin, adibidez), eta aukeratu dituen ekimenak azalduko dizkio. Bigarren talde hori arduratuko da beste taldearen ekimenak guztien aurrean azaltzeaz.

Prozesu hori berriz egingo da, baina alderantziz, hau da, lehen azalpenak entzun dituen taldeak bere ekimenak azalduko dizkio beste taldeari, eta horrek, era berean, entzundako informazioaren berri emango du.

Material lagungarria

Alternatibak eta politika publikoak elikatzen" proiekturako esteka (bertan dago esperientzien mapa): <http://politikak-elikatzen.bizilur.eus>



Aldaera posibleak

Beste ekimen bilatzaile batzuk erabiltzea

Existen otros buscadores de iniciativas de la economía social y solidaria, proponemos dos de ellos:

1. Mercado social. Gidaliburuan ikusi dugunez, merkatu soziala ondasun eta zerbitzuen ekoizpen, banaketa eta kontsumo sare bat da, oinarriztat dituen irizpide sozial eta ingurumeneko batzuk, eta bere baitan biltzen dituen hainbat ekimen. Hau da ekimen bilatzaile horretarako esteka: www.mercadosocial.net
2. Pam a pam. Katalunian Pam a Pam izeneko bilatzailea dago. Bertan, Katalunian irizpide sozial eta ingurumenetakoetan oinarrituta garatzen dituzten ekimen ugari aurkituko dituzu. Hau da bilatzaileko esteka: <https://pamapam.org>

Eranskina (7. Jarduera):

Ekimen komunitarioaren fitxa

Ekimenaren izena:
Lan eremua (<i>Burujabetza</i>) eta azpi-eremua:	
.....	
Zer egiten du eta nola? (<i>Tresnak</i>):	
.....	
Nork bultzatzen du? (<i>Nortzuk</i>):	
.....	
Non garatzen da? (<i>Non</i>):
Laburbildu zure hitzetan ekimena zertan datzan:	
.....	
Zergatik da taldea edo komunitatea ezinbestekoa ekimenak funtziona dezan?	
.....	

Ekimenaren jardueraren zer zatik ez darabilte dirurik edo erabiltzen dute tokiko diru motaren bat?

Tokiko dirua erabiltzen badu, zein da?

Nola sendotzen ditu sareak beren jardunari esker?

Zer sare mota sendotzen ditu?

Nola zaintzen ditu ondasun komunak?

Zer ondasun komun zaintzen ditu?
